



Lagunak



Festa



Doinua



Dantza




Usadioa



Plaza

eta gehiago...

#SPJ15



OSO ONDO PASA SAN PEDRO JAIETAN!

ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



kutxabank 

Zure jaiak.
Gure jaiak.

 kutxa


JAIGI
KAFE-ANTZOKIA

Giro ederra!
Pintxo goxoak!



San Pedro Jai zoriontsuak igaro!!!



**GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024**

Hemen dira San Pedro jaiak

Oharkabean iritsi zaizkigu San Pedro jaiak. Dagoeneko armairutik atera eta txukundu ditugu blusak urte luzean armairuan gordeta egon ondoren. Batzuentzat gaur izango da festetako lehenengo eguna izan ere, Sorgin Jaikoek ohi bezala, zertxobait aurreratuko dira eta gaur jaurtiko dute euren txupinazoa.

Bihar berriz, eguerditik aurrera festa lehertuko da haurren txupinazoarekin batera eta horrela jai giroa nagusituko da. Izan ere, jarraian iritsiko dira jaietako ekintza nagusietakoak diren Sorgin Dantza, txupinazoa eta lehenengo parranda gaua, Zea Mays eta Gozategi taldeekin. Aurten ere, Okendo plaza izango da festen gune nagusi.

Egitarau oparoa dugu ekainaren 26tik 29ra bitartean. Sorgin Jaikoek txosna Okendo plazan izango dute iaz bezala eta plazako agerlekua elkarbanatuko dute Udalak eta Ttakunek antolatutako ekintzekin. Ohi bezala, Sorgin Jaiak irekiko dituzte festak gaur txupinazo alternatiboarekin, 20:00etan egingo dute eta izango dira usteka-beak. Aurten langileak omendu nahi izan dituzte. Udalak ordea, bihar bi txupinazo egingo ditu aurreko urteetako bideari jarraiki eta 2015eko bi omenduek botako dituzte txupinazoak, Ostadar SKT eta Biyak Bat elkarteko kideak hain zuzen.



Lehenengoa, haurren txupinazoa izango da eguerdiko 12:00etan udaletxe zaharretik. Honetara herriko haur eta gazteak gonbidatuta daude buruhandi, erraldoi eta txarangaren doinu alaiekin batera festari hasiera eman diezaioten. Arratsaldeko 19:00etan berriz, Ostadar eta Biyak Bateko kideek izango dute txupina Udaletxe berriko balkoitik Lasarte-Oriako zerura botatzeko ardura.

Hortik aurrera, leher egingo du festak. Herriko kaleak girotuko dituzte txaranga eta buruhandiek, Sorgin guneak, danborradak, zikiro-afariak, barrakek, kontzertuek... Baina batez ere herritarrok emango diegu kolorea, festaren arima izan behar dugulako.

Lauzpabost egunez etxetik kanpo egongo gara, kaleak hartuko ditugu eta hamaika ekintzetan, festa ofizial zein alternatiboen baitan antolatutakoetan, parte hartuko dugu.

Gaur motorrak berotzen hasteko aukera izango dugu eta bihar hasiko dira San Pedroak.

Gora San Pedro Jaiak!

**hurrengo
zenbakia**

txintzarri

Uztailaren 1ean

2015ko San Pedro festetako argazkiak

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez
txintzarri@txintzarri.info

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarre, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

Biyak Bat Omendua

“Aktibo mantzea da helburua”

Jubilatuentzat ekintza sorta zabala eta zerbitzuak eskaintzen ditu Biyak Batek

Lasarte-Oriako jubilatuak aktiboak direla ezin ukatu. Gimnasia, yoga, mahai eta mugimendu jokoak... denetarik egiten dute eta beti herriko ekintzetan parte hartzeko edo laguntzeko prest agertzen dira. Horregatik Biyak Bat elkarte da aurten San Pedro Jaietako omenduetako bat.

Nerea EIZAGIRRE

1968 urtean sortu zen Biyak Bat elkarte. Jubilatuak bildu eta ekintzak egiteko leku baten beharra zegoela ikusi zuen orduan, guraso talde batek.

Lanean hasi eta hamar urte ostean, elkarte egoitza finkoa izatera iritsi zen. 1978ko urriaren 8an, elkarte gaur egun dagoen eraikinean, Kale Nagusian irekitzen zituen ateak.

Geroztik hainbat zuzendaritza izan dira lanean eta garai ezberdinak bizi izan dituzte. Baina beti helburu bakarra izan dute: herriko jubilatuak elkarleku bat izan eta bizitza aktibo eta osasuntsua izan dezaten.

Lan hori eskertuz, Lasarte-Oriako Udalak omendu du elkarte aurtengoan. Zuzendaritzako kideekin bildu gara elkartearen egoera zein den jakiteko.

Biyak Bat elkarte lagu-

nak pozik agertzen dira Udalak egindako aitortzarekin. Exiquio lehendakaria eta Adela zuzendaritzako kidea joan ziren alkatearekin hitz egitera. “Honek azaldu zigun azken urteetan pertsonak beharrezkoak edo elkarrekin omentzen zituztela eta gu izatearen arrazoiak azaldu. Ongi hartu dugu omendua izatea”.

Bazkide kopurua

Aerobik, lerroko dantzak, areto dantzak, yoga, kiroldegian egiten den gimnasia, abesbatza, pedikura, ileapaindegia, kiromasajista... hamaika ekintza eta zerbitzu daude Biyak Bat elkartearen.

Askok dira elkartearen ekintzetan parte hartzen dutenak “jendea aktiboa da”. “Beste batzuk ez dute ezer egiten eta 85 urte baino gehiagoko talde handi bat dago ere”, adierazi dute.

Izan ere, egun 2500 baino gehiago bazkide dira elkar-



Gimnastika erakustaldiarekin ikasturtean zehar osasuntsu mantentzeko lan gogorra egiten dutela erakusten dute.

tean. Zuzendaritzako bazkideek azaldu digutenez, “Bazkide asko dago kuota ordaindu eta elkartera etortzen ez dena. Beste batzuk hemen egunero gaude. Eta bada herrian urte osoan zehar bizi eta loteria eskuratzeko bakarrik agertzen dena”.

Baina haiek azaltzen duten bezala, “Bakoitzak nahi duena egin dezake bertan. Guk aukerak ematen ditugu eta bakoitzak erabakitzen du zer egin”.

“Jende asko ez da hona etortzen zahar usaina duela

diotelako edo bestelako gauzak, baina ez da horrela...” Bazkide gazteenak 60 urte dituela azpimarratu dute.

Ekintza eta zerbitzuak

Aipatu legez, ekintza ugari antolatzen dituzte elkartearen sasoian mantendu edo burua eragiteko.

Irteerak ere izaten dituzte urtean zehar, Galizia eta Asturias aldean izan dira Biyak Bateko kideak azken hilabeteetan, baita Baztan eta Lizarra ere.

Hitzaldi ugari ere izaten

da, “hilabete honetan atsedena izan da, baina uztailean emakumeen zentroko kideek sexualitateari buruzkoa hitzaldia eskainiko dute”.

Honetaz gain, herrian egiten diren ibilaldi osasuntsuetan ere lanean ari dira. Biyak Bat elkartearen kideak ostiralero 11:00etan doaz ibiltzera. “Eguraldi ona egiten duenean kopurura jaitsi. Pena bat da ibilbide polita da eta. Bidegorri berria inauguratu dugu eta ibilbide oso ondo dago.

Eta herrikan kanpo ere, beste jubilatu elkarteekin ere



OSO ONDO PASA SAN PEDRO JAIETAN!!

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

ASKO DISFRUTATU HERRIKO JAIETAN!

**Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net**




**Pastelak
Opilak
Pastak
Ogia
Bonboiak
...**

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!



**Etorri-gurekin
kafea hartzera
gosaltzera...**

Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net

hartu emanak ditu Gipuzkoako elkarteak antolatzen dituen ekimenei edo abesbatzak egiten dituen elkartrukeei esker.

Honela, lehiaketa gastronomikoa, Altzan antolatzen den mahai eta mugimendu joko txapelketa edo lurraldeko ibilaldi neurtuan parte hartzen dute Biyak Bateko kideek.

Abesbatzari dagokionez, laster Ordiziara doa emanaldia eskaintzera.

Parte hartze handia

Ekintza hauetan guztietan, "parte hartzea handia da" eta 2014 urteko datuak ere eman dizkigute. Ekintzako 15 bat kide biltzen dira, "batzuetan askoz gehiago dira"; Zaharren omenaldian 355 bat pertsona parte hartu zuten; urrezko ezteietan 54 pertsona omenatu ziren; Altzan egiten diren lehiaketetara 43 kide joan ziren; Azkorte eta maiatzaren leheneko ekintzetan 620 izan ziren; 520 kidek gozatu dute irteeraren batean; Santo Tomas egunean 550 bat kide bildu ziren. Iazko San Pedro Jaietako txapelketetan 400 bat kide lehiatu ziren eta luncheon 200 pertsona izan ziren. "Guztira 3.500 bat partaide, baina kontuan izan behar da pertsona batek ekintza askotan parte hartu ahal izan duela".

Aktiboak direla esan daiteke, baina ekintza batzuetan krisia antzematen dela ere azpimarratu dute. "Ez bakarrik gurean, inguruko herrietan ere gertatzen ari dela jakin dugu. Hemen irteeretan

azken aldian zaila izaten ari da taldea osatzea. Ea hurrengoetara herritar eta bazkideak animatzen diren," aipatu dute.

San Pedroetan ere aktibo

Urte osoan zehar, hainbat ospakizun antolatzen ditu elkarteak eta San Pedro Jaietan ere parte hartzen dute kideek.

Batetik, San Pedro jaietako aurrekari modura egiten dituzten txapelketa eta erakustaldiak daude.

Musa, eskoba, tutea, rabiñoa, seiak, damak, dominoa, igela, botea edo toka lehiaketak izaten dira eta arrakasta handia dute. "Txapelketaren arabera jende gehiago edo gutxiago parte hartzen du. Jendea nahiko aktiboa da honetan".

Eta irabazleek gaur egingo den saribanaketa jasoko dituzte haien sariak.

Era berean, gimnastika egiten duten kideek sasoiari mantentzen direla erakusten dute kiroldegian egin ohi den ekitaldian.

Abesbatzak atzo bere aletxo jarri zuen eta Ama Brigitarren komentuan kontzertua eskaini zuen. Atsobakar Zahar egoitzan ere izango dira egun hauetan.

San Pedro jaien barruan, berriz, lerroko dantzen eta areto dantzen erakustaldia antolatu dute.

Talde hauek ekainaren 28an, igandean, 10:30etik aurrera erritmoa zainetan dutela erakutsiko dute Okeno plazan.

Hau guztiaz gain, iaz



Iaz 20 urteren ostean, konpartsa berriz eratu zuten Biyak Bateko lagunek, aurten ere kalean izango da.

arrakasta handia izan zuen txaranga ere aterako da aurten. San Pedro egunean, ekainaren 29an, arratsaldeko 19:00etan izango da hori. "Ia 20 urte atera gabe egon da txaranga hau eta iaz berreskuratu genuen. Jendea asko animatu zen parte hartzera eta aurten ere horrela izango dela uste dugu".

Eta noski, omendu bezala jai hasierako txupinean eta San Pedro egunean egingo den omenaldian izango dira. Azken ekitaldi honetan abesbatzak ere parte hartuko duela aurreratu digute.

Etorkizuna

Zuzendaritzak lanean jarraituko du elkarteko kide diren herriko jubilatuek aktibo mantentzeko. Izan ere, ekintza hauetaz gozatzeko elkarteko kide izan behar dela gogora ekartzen baitute.

"Kartetan jokatzera, kafe bat hartzera, ezagunekin egotera... etorri daiteke jendea,



Abesbatza da jubilatuentzako ekintzetako bat.

taberna libre baita, baina beste guztirako bazkide izan behar da".

"Dirua ongi kudeatu behar dugu, bazkideen kuotak ditugu bakarrik. Egia da Udalak asko egiten duela gure alde. Lokala uzten digu eta argia eta garbiketa gastuak bere gain hartzen ditu eta ekintza puntual batzuetan laguntza-txo bat ematen du, San Pedro Jaietako txapelketen sarietarako.

Baina ekintza eta zerbitzuen kudeaketa guk egin behar dugu. Ez dugu beste leku batzuetan bezala Udalaren diru laguntzarik. Orain laguntza bila gabiltza".

Hori dela eta, herriko jubilatuei elkarera hurbildu, bazkide egin eta ekintzetan parte hartzeko gonbita egiten diete. "Gazte jendea elkarrekin mar txan utzi behar diogu, haiek ere etorkizunean gauzak egiteko aukera izan dezaten".

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA



Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



ONDO PASA SAN PEDRO JAIETAN!!

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK

MOTOTZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...

*MERKATARITZA

*BIZITZA ETA ERRETIROAK

*OSASUNA

*ISTRIPUAK ETA
GAIXOTASUNAK

*ERANTZUKIZUN ZIBILA

*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK

*INBERTSIOAK

*PYMEAK...



DISFRUTATU
SAN PEDROTAN!



MUGICA

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxes: 943 372413

Ganbo Kalea 1 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxes: 943 372413

Nerea Uralde Jaietako kartelaren egilea

“Festetako egitaraua aztertu nuen kartela egiteko”

Andoainen bere karteekin hainbat lehiaketa irabazitakoa da Uralde

Ezustekoa izan da Nerea Uralderentzat lehiaketa irabaztea. Herrikoa izan gabe festak ondo islatuko zituen beldur ere bazen. Egitaraua sakonki aztertu eta aurreko urteetako kartelak ikusita, kartela osatu eta aurkeztu zuen. Ez zuen uste guztira soilik zortzi lan izango zirela lehian. Hala ere, maila ona zegola ere iruditu zaio.

Maidar AZURMENDI

Nerea Uralde maketa-tzaile lanetan aritzen da, Arte Ederrak ikasi zituen eta diseinu kontuak gustatzen zaizkiolako aurkeztu izan da mota honetako lehiaketetara. Denbora edukita, eta ideia argi edukitzekoan, ez du zalantzarik izaten lehiaketetara aurkezteko.

Nolatan aurkeztu zinen lehiaketara?

Egia esan gustatzen zait noiz-behinka zein lehiaketa dau- den bilatzea Interneten eta horrela topatu nuen Lasarte-Oriako martxan zegoela eta animatu nintzen. Gustuko dut halakoetan parte hartzea.

Gainera digitalean aurkezteko aukera eskaintzen zen. Oso leku gutxitan onartzen dute, ia beti formatu fisikoan eskatzen dira. Erosoagoa da eta gastua ere ez duzu egin behar kartela inprimatuta eta tamaina handian eramateko. Batez ere, udaleko ordutegian entregatzea da zaila lanean gabiltzanontzat. Eskertzen da digitalean lanak onartzea.

Hainbat sari irabazita dituzu? Zein la kuttunena?

Bai Andoainen batzuk irabazi ditut, inauteritako kartela, emakumearen eguneko... Lehenengoa da berezi- zana zalantzarik gabe. 1998an izan zen Andoainen Emaku-

mearen egunaren harira. Beti marrazten ari nintzen eta probatzeagatik animatu nintzen lan bat aurkeztuta. Lehenengo lehiaketa hori irabaztea izugarria izan zen. Oso polita da zure lanak harrera ona duela jakitea.

Hala ere ilusioa beti egiten du. Kaletik kartelak ikusteak poza ematen du.

Zein ideia adierazi nahi izan dituzu lanean?

Oinarriak irakurrita, ikusi nuen genero berdintasunare- na aipatzen zela besteak beste eta hiru pertsonaiekin pentsatu nuen hasieran. Iazko egitaraua hartu eta ekintza nagusiak zeintzuk ziren bilatu nuen. Azkenean bi pertsonaia egin eta San Pedro jaiak leloari, hizkiei garrantzia ematea erabaki nuen.

Estiloari dagokionez, “Vintage” estiloa duela esan dida- te, kutsu hori eman nahi izan nion, baina orokorrean pixkat arraroa da, ez da betiko feste- tako kartela. Agian horregatik gustatu zaie, berezitasun horregatik.

Jendeari erakusten al diozu lana aurkeztu baino lehen?

Gustatzen zait lanak erakus- tea bai eta kasu honetan jen- deari gustatu zaio. Dena bi pertsonaiekin bateratzea gus- tatu zaie batez ere.

Maketatzailea naiz, Arte Ederrak ikasi nituen eta disei-



nuan nire kontura aritzen naiz. Gustatzen zaidalako egiten dut. Denbora edukitzea inportantea izaten da ere lan bat horrelako lehiaketara aurkeztu nahi denean.

Herrikoa izan gabe islatu dituzte festak...

Bai beldur hori ere banuen, ez dut giroa ezagutzen... denbora neukan eta egitaraua azter- tzekeo tartea hartu nuen. Konturatu nintzen gauza pila egiten direla Lasarte-Orian festetan. Azkenean niretzako esanguratsuenak ziren ekin- tzak hartu nituen eta irudikatu. Aurreko urteetan aurkeztu- tako lanak ere ikusi nituen hauetan zer nabarmentzen zen ikusteko.

Egia esan, ez naiz inoiz egon Sanpedrotan. Ez naiz festa zalea. Aurten agian bueltaxka bat ematea gertura-

tuko naiz eta ikusiko dut kar- tela jarrita, baina festa egunetan ez dut uste.

Zortzi lan izan dira aurkeztutakoak maila nolakoa izan dela iruditu zaizu?

Mailari dagokionez, nire ustez denetarik egon da. Lanak ikusi nituenean baten bat ere irabazletzat jo nuen. Orokorrean espero nuen lan gehiago aurkezteko.

Zer iruditzen jendeari iritzi- a emateko aukera eskaintzea?

Jendeari iritzia jakitea oso ondo iruditzen zait baina Internet bidez bozka ematea- rena zaila ikusten dut. Horre- lakoetan kontrolatzea bozka errealak zeintzuk diren... jen- deak beti posta berriak zabal- du ditzake bozka gehiago emateko eta horrelakoak.

Ahalik eta jende gehienaren iritzia jakitea iruditzen zait hoberena baina hori jasotze- ko formula onena topatzea zaila ikusten dut.

Saria zer iruditzen zaizu?

Saria ondo dago Andoain oinarri hartuta behintzat. San Ferminetako adibidez beste maila bat da. Jendetza aur- kezten da eta hor bai saria potoloda da.

Garrantzitsuak dira halako lehiaketak?

Garrantzitsuak dira bai, zure lana lehenengoz herrian erakustea aukera polita da. Aprobetxatu behar da. Lana ezagutzera emateko aukera dira. Niri gustatzen zait beste diseinatzaileen lanak ikustea, teknika berriak, etab. Nik uste dut asko ikasi daitekeela horrela. Aberasgarria da.

serigrafiaiosu.com
ASKO DISFRUTATU SAN PEDRO JAIETAN!!!
Kamiseten inprimaketa Txiskeroak
Industri nahiz iragarki serigrafia Binilozko pegatinak Boligrafoak, etb...
943 37 19 54

taberna
elurtza
¡¡ GORA SAN PEDROAK !!

Maitte Erkizia
ILE-APAINDEGIA
ESTETIKA
ASKO DISFRUTATU FESTETAN!
Blas de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370254
LASARTE-ORIA

Balerdi Larategiak

LASARTE
Kale Nagusia, 36-38 • Tel. 943 33 42 82
Geltoki kalea, 19 • Tel. 943 37 65 85
Kale Nagusia, 50 • Tel. 943 36 36 11

HERNANI
Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82

URNIETA
Idiazabal kalea, 17 • Tel. 943 00 81 69

DONOSTIA
Birmingham, bajo nº 31 • Tel. 943 28 23 23

ONDO IBILI SAN PEDRO, GURE HERRIKO JAIETAN!

David Heras Efektu Bereziak teknikaria

“Auto hegalariai sortu nahi nituen”

1999. urtetik Madrilén bizi da herritarra efektu berezietan lan egiteko

David Heras herritarra bigarren aldiz izan zen izendatua Goya sarietara aurtengo edizioan ‘Open windows’ filmaren efektu berezi onenengatik. Saria eskuratu ez arren, lanaren aitortza garrantzitsua dela dio. Kotxe hegalariai sortzea zuen amets eta 1999. urtetik horretan ari da lanean. Momentu honetan Koldo Serraren ‘Gernika’ filman lanean ari da. Zimez gain, musika du beste pasioa eta Kudai bere taldearekin bosgarren diskoa ateratzeko dauka.

Maidar AZURMENDI

Davidek txikitatik argi zuen zinema mundua zela gehien gustatzen zitzaiona. Pantailan ikusten ziren gauza magiko horiek berak sortu nahi zituela, pertsonaiak, kotxe hegalariai...

1999. urtetik Madrilén bizi da eta hori du ogibide, esistitzen ez diren lekuak eta pertsonaiak sortzen ditu UserT38 enpresan. Bi aldiz jaso du Goya sarietarako izendapena, azkena aurten Natxo Vigalondoren Open Windows filman egindako lanagatik. Urteko filmetan efektu onenen artean norberak egindakoak egotea ohorea izetaz gain, helburua

ere bihurtu da herritarrarentzat. Urtero hor egiteko lan egin behar delako.

Momentu honetan Koldo Serraren ‘Gernika’ filmaren grabazioetan murgilduta dago. Gerra garaiko erasoan eszenak dira bere ardura.

Efektu berezietan lanean nola hasi zinen?

Dena hasi zen zineman ikusi nuen lehenengo filmari esker “Regreso al futuro”, dagoeneko desagertuta dagoen Astoria zinean.

Orduetik oso argi izan nuen hori zela egin nahi nuena. Ez nekien ez nola deitzen zen, ezta non ikasi zitekeen, baina auto hegalariai egin nahi



David Herasek txikitatik izan zuen argi zinema munduan lan egin nahi zuela.

nituen, jendea pantailatik desagerrarazi, tximista bel-durgarriak sortu...

Orduan Informatika ikasi nuen lehenengo, izan ere, uste nuen hortik joan zitekeela, ondoren zinea ikasi nuen, multimedia eta azke-

nean 3D mundura iritsi nintzen. Estatuan zabaldu zen Softimage, 3D softwarea, kalifikazioa izan zuen lehenengo eskolan Sintesis-en. Eskolan Madrilén praktika batzuk eskaini zizkiguten eta asko pentsatu gabe joan egin nintzen. Horrela hasi zen dena.

kontzeptualizazioa eta aurre-produkzioa egiten da. Gidoia oinarri hartuta, efektuak diseinatzen hasten gara, efektuen sekuentziak planifikatu eta ideia ezberdinak proposatzen ditugu hauetako bakoitzerako. Beti ere modu eraginkorrenean martxan jarri daitezkeenak.

Ondoren, filmazioan efektuak nola geratzen diren ikusten dugu, beharrezkoak diren markak jarri, zuzendaria eta ekipoa orokorrean gidatu, kamara datuak apuntatu, erreferentziak atera, argazkiak egin, notak hartu...

Azkenean salan egindako lana ikuskatzen da. Berez efektuen sorrera da, artistak antolatzen, orientatzen eta euren lana begiratzen VFX-ak eta zuzendari zein produktorei aurkeztu.

Zenbat denbora daramazu esparru honetan lan egiten? Madrilera 1999. urtean joan nintzen praktikak egitera eta orduetik nabil efektu berezien munduan lan egiten.

Zehazki zer da egiten duzun lana? Ordenagailuz diseinatzen dituzue agertokiak, historikoak zein futuristak... eskatzen dizuetena...

Efektu berezien arduraduna naiz. Oinarrian, nire lanak hiru atal dituela esan daiteke. Lehenik eta behin, efektuen

Nolakoa da sortze proze-



‘Gernika’ filmaren grabaketan buru belarri aritu da herritarra.

Ondo pasa San Pedro Jaietan!

NEUS
ile-apaindegia

Pablo Mutiozabal 9-1.C
Tel.: 943 361691
LASARTE-ORIA

Lasarte inmo

SAN PEDRO JAIETAN OSO ONDO PASA!

www.inmolasarte.com

Geltoki Kalea 16 behea
Tel.: 943 536481- 659 257345
20160 Lasarte-Oria
info@inmolasarte.com

LIBRERIA MAITE

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

Geltoki 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372791

TINHOA TABERNA

Razioak
Pintxoak

... Etorri San Pedro Jaietan dastatzera!

**Kale Nagusia 46
Tel.: 943 370885**

ERREKATXO
jaketxea

Etorri San Pedro Jaietan gu ezagutzera!

**Oria Etorbidea
Ibaiondo Poligonoa 4
Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria**



Gerra Zibileko erasoak eta hauen ondorioak sortzea da herritarraren lana, irudian Koldo Serra zuzendariarekin.

sua? Nola da eszena berri bat sortzeko bidea?

Lehenengo gauza zuzendariarekin biltzea da. Berak kontatu behar digu buruan duena eta nola aurreikusten duen lana. Adibidez mounstruo bat. Lehenengo gauza diseinu eta kontzepzionatzeko taldearekin elkartzen gara zuzendariarekin mounstruoaren erreferentziak zehazteko. Berak nola irudikatzen duen kontatzen digu, filmean zer egin beharko duen, morfologia, ezaugarri diferentzialak, hau da, nahiz eta mounstruo berri bat sortu, beti laguntzen du familia bat finkatzea, planeta, arraza, antzekotasunak beste batzuekin...

Bilera horretatik aurrera marrazkien bitartez mounstruoak egiten ditugu bat onartzen den arte.

Ondoren, diseinua onartuta, 3Dn sortzen dugu, azala egiten diogu, hezurak, giharak, ibltzeko modu bat ematen digu, izaera, textura, ilea etab. Eta adibide modura, akzio bat egiten diseinatzen dugu mounstruo.

Behin edukita, filma grabatzera joaten gara eta bertan aktoreei esaten diet non dauden mounstroaren begiak, zein den bere gorpuzkera, eta planoan egin dezaketena eta

ezin dezaketena egin dena ondo joan dadin.

Azken pausua da mounstruoaren eszenetan txertatzea.

Efektu bereziak entzuten dugunean leherketa handiak eta halakoak etortzen zaigu burura baina hori baino askoz gehiago da ezta?

Efektu bereziak eta bisualak bereiztu beharko genituzke. Batetik efektu bereziak filmaketan egiten direnak dira, euria, leherketak, suak eta bestetik efektu bisualak daude, ordenagailuz sortzen direnak. Elementu anakronikoak borratu edo 3D irudiak txertatu, extentsio digitalak, errekreazio historikoak, suntsiketak...

Gaur egun ia dena VFX - en egin daiteke zorionez edo zoritxarrez.

Azken Goya sarietara izendapena jaso zenuen. Zer suposatzen du horrelako aitorten batek?

Bigarren aldia da Goya sarietara efektu hoberenengatik, Juan Carlos Fresnadilloren 'Intruders' filmagatik eta aurtan Nacho Vigalondoren 'Open Windows' lanagatik baina beste behin ihes egin zigun sariak. Garrantzitsuena hor egoteagatik lanean jarrai-

tzea da hori bait da gauzak ondo egiten ari zarekaren seinale eta aldi berean zine akademiak zure lana aitortzen duela horrek ematen duen prestigioarekin.

Egia esan pozgarria da urteko lau lanen onenen artean egotea, estatuan oso mala altua dago VFX alorrean.

Jendeak telebistan edota zine aretoetan ikusi duen zein film edo sarietan egin duzu lan? Zer sortzen?

Intruders, Non Stop, Open Windows, Mama, Mindscape,

Goya sarietara bi aldiz jaso dugu izendapena baina ez dugu saria eskuratzeko aukerarik izan. Hala ere, garrantzitsuena lana egitea da urtero hor egoteko lana ondo egiten ari zarekaren seinale delako.

Hierro eta beste film askotan. Telesailetan 'Ministerio del tiempo' eta 'Refugiados'. Diseinu eta filmen kontzeptualizazioan, 'El laberinto del Fauno', 'Pacific Rim', 'Ágora', 'Hellboy', 'Regression', 'Agnosia'...

Momentu honetan Koldo Serraren Gernika filmarekin gaude eta El Ministerio del Tiempo telesailaren bigarren denboraldia prestatzen.

Zuzendariarekin egiten duzue lan zuzenean? Aktorekin ere harreman zuzena izan behar duzue?

Batez ere zuzendariarekin egiten dut lana, sormeneko lanean eta filmaren bukaeran. Aktorekin filmaketan izaten naiz VFXen inguruan azalpenak ematen.

Filmaketetan denek lana ondo bukatzeko ahalegina egiten dugu, film txikia, handia edo erraldoia izan. Mundu guztiak lan egiten du sail guztiarekin koordinazioan.

Madriren ari zara USER T38 enpresan lanean, Euskal Herrian ez al dago aukerarik sektore honetan? Bai aukera badago baina gehiena Madril eta Bartzelonan kontzentratzen da. Nire ustez, lan egiteko aukera gehien dagoen lekuan Egon behar da.

Herrira etortzen al zara? San Pedro festetan izan al zara azken urtetan? Nola gogoratzen dituzu?

Herrira asteburuero igotzen saiatzen naiz, beti ere lanak uzten badit.

Donostian dut Kudai nire musika taldea, eta batetik bestera ibiltzen gara. Iaz adibidez, ezin izan nuen San Pedroan egon, oker ez bana-go, Gasteizen kontzertua genuelako.

Modu hoberena herriko jaietan egoteko udaletik edota txosnetan jotzeko deitzea da. Oso onak gara eta bosgarren diskoa kaleratuko dugu aurtent.



Suteak eta lehergailuen eztandez gain, ordenagailuz diseinatutako leku eta pertsonaiak sortzen ditu Herasek.



ALBA

ARROPA DENDA

ASKO DISFRUTATU
HERRIKO JAIETAN!

KOOKAI
NAFNAF
YERSE

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Hamaika ekintza Ttakunekin

Herriko elkarteak San Pedroetako egitarauan hainbat ekintza txertatu ditu, haur zein helduentzako hitzorduak izango dira

Urtero bezala Ttakun elkarteak San Pedro jaietako egitaraua osatzen parte hartu eta ohiko hitzorduei eutsi die. Horrela izanda, adin guztiei zuzendutako ekintzak izango dira datozen egunetan. Haurrentzako bazkari eta ur jokoak, Sorgin dantza, zikiro afaria, kantu-dantza jira, sagardo dastatzea eta bertso saioa izango dira. Elkartetik herritarrek gonbidatzen dituzte hauetan parte hartzea.

Ttakun kultur elkarteak urtero bezala hainbat ekitaldi antolatu ditu San Pedro jaien baitan euskal giroa festetan ere zabaltzeko asmoz.

Adin guztientzako ekintza sorta prestatu da aurtengoan ere eta ohi bezala herritarren aldetik harrera ona izatea espero da.

Hauetako batzuek arrakasta ziurtatuta dutela esan daiteke, Sorgin Dantzak eta Zikiro afariak esaterako.

Haurren bazkaria

Bihar San Pedro jaietako hasiera emango zaie haurren txupinazoarekin eta azken urteetan ohikoa den bezala, etxeko txiki eta gazteak izan-

go dira jaietako ekintzekin ondo pasatzeko aukera izango duten lehenengoak.

12:00etan, haurren txupinazoa egingo da Udaletxe zaharretik eta ondoren, 13:30ean, haurrak kalejiran joango dira Atsobakarreko parkeraino Txorotxaragaren doinuekin. Bertan, 14:00etan, haurren bazkaria, makarronada erraldoia antolatu du Ttakunek. 250entzat izango da gutxi gora behera.

8 eta 12 urte arteko gaztetxoak Okendo plazatik aterako dira kalejiran Atsobakar auzoraino, bertan makarroiak bazkalduko dituzte eta bazkalostean, 15:00ak aldera, Busti Blai ur festa arrakastatsua egingo dute.



Sorgin Dantza San Pedro jaietako ikur bilakatu da eta aurten ere herriko kaleak zeharkatuko ditu.

Ur jolas ezberdinak burutuko dituzte haurrek 16:30ak arte eta "ziur haur eta gaztetxoek gustura hartzen dituztela ur jolasak," aipatu dute antolatzaileek.

Ikastetxeetan aurreko

asteen lagun koadrilaren izena eta irudiarekin margotutako kamiseta dotoreak erakusteko aukera izango dute gainera haurrek egun honetan.

Sorgin Dantza Oriatik

Jaietako adierazgarri da Sorgin Dantza eta aurten ere ez du hutsik egingo. Iazkoa azken urteetako Sorgin Dantzarik jendetsuena izan zen.

320 bat herritarrek parte hartu zuten eta arrakasta errepikatzea da antolatzaileen nahia.

1994tik antolatzen du Ttakun elkarteak eta dagoeneko Lasarte-Oriako herriaren eta bertako festa nagusien ikur bihurtu den Sorgin Dantza. Aurten ere Okendo plazan burutu dira entseguak hilabete osoan zehar eta oso harrera ona izan dute.

Helduen zortzikotearekin batera gazteen zortzikotea osatu da aurten ere.

Ikastetxeetan egin zen

deialdia eta hortik interesa izan duten gaztetxoekin eratu da.

Sorgin Dantza, Oriatik abiatuko da bihar, 16:30ean gutxi gorabehera eta dantzariak bertan egon beharko dute 16:00etarako.

Ordutegia betetzea garrantzitsua dela aipatzen dute antolakuntzatik eta horregatik herritarrei puntual azaltzea eskatzen zaie.

Aurten bidean dantzariak egingo dituzten geldialdiei dagokionez, Oriatik lehenengo, Biyak Bat jubilatuen elkartearen parean bigarrena eta Udaletxe zaharren aurrean hirugarrena izango da.

Dena ondo bidean eta eguraldiak laguntzen badu, Okendora 19:00etan txupinazoa aurretik iritsiko dira dantzariak eta azken dantza plazan eskainiko dute.

Zikiro afaria

Gauean askorentzat ere tradizio bilakatu den zikiro afa-



Ederki pasa ohi dute gaztetxoek makarronada ondorengo ur jolasekin.



ABEND

KAFE-ANTZOKIA

DISFRUTATU
HERRIKO JAIETAN!

Pablo Mutiozabal 5 - Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK

Goizeko 5ak arte irekita!!

ria egingo du Ttakunek Okendo plazan bertan.

Arratsaldeko lehen ordue-tatik arituko dira sukaldariak 21:30etarako guztia prest izateko. Beraz, usain ederra izango da arratsalde osoan zehar Okendo plazan.

Afarian, entsalada eta zikiroa egongo da 250 laguentzat, giro ezin hobean.

Honetan parte hartzeko salgai izan dira txartelak azken bi asteetan Ttakun eta Jalgin.

Bapo afalduta, dantzarako garaia izango da.

Kantu Jira

Igandean, Ttakunen egitarauan gero eta arrakasta handiagoa duen kantu-dantza jira egingo da goizean.

Aurten ere iaz egin bezala, dantza plazako dantzariak lagunduko dute eta dantza eta kantua uztartuko dituzte ibilbide osoan zehar.

Eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Sagardotegi kaletik euskal abestiak kalez kale kantatu eta dantzatzuz.

Honetan herriko plaza dantza taldeko kideekin Donostiakoa izango da. Erketzeko dantzariak arituko dira hauekin ere.

Xumela abesbatzak eta Albokako kide batzuk ere parte hartuko dute euren ahotsak batuz eta gonbidatuta daude bertan parte hartzera, Hondarribi, Zarautz, Usurbil eta Donostiako kantu jiretako kideak. Horrela izanda, jendetza elkartzea espero dute eta herritarrak ere haue-tan batu ahal izango direla gogoratzen dute antolakuntzatik.

Sagardo dastatzea

Arratsaldean, Sagardo dastatzea eta dantza gidatuekin primeran pasatzeko aukera izango da.

Honetan herriko Sollane,

Buenavista, Telleri, Zubillaga eta Saltsate baserrietako sagardo banatuko da.

18:00etan hasiko da sagardo banaketa Okendo plazan. Edalontziak euro bat balio du eta gainontzean, nahi guztia edan ahal izango dute herritarrek.

20:00ak arte luzatzea espero da, edota sagardoak iraun arte.

18:30 ean hasiko da dantza gidatua eta nahi duten herritarrek parte hartu ahal izango dute. Dantzan dakitenek eta ez dakitenek ederki pasatzeko aukera izango dute.

Gidari lanetan David Egizabal eta Maider Oiartzabal izango dira.

Bertso saio berezia

Gauean berriz, bertsoez gozatzeko aukera eskainiko zaie herritarrei.

San Pedro jaietako bertso saio berezia Manuel Lekuonan egingo da 22:00etatik aurrera.

Aurten, Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin, Unai Muñoa eta Patxi Etxeberria arituko dira oholtzan. Gaiak berriz, Inazio Usarralde jarriko ditu.

Bertso saio polita antolatu du aurtengoan ere Ttakuneko Earra! Bertso eskolak.

Bertsozaleek maila altuko emanaldiaz gozatu ahal izango dute.

Sarrerak egunean bertan erosi ahal izango dira Manuel Lekuona kultur-etxe-ko lehiatilan 5,50 eurotan edo aurretik Internet bidez.

Aukera zabala eta adin guztietarako ekintzak izango dira Ttakunen esku San Pedro jai hauetan ere.

Herritarrei ekintzetan parte hartzeko eta ondo pasatzeko deia egiten zaie elkartetik.



Kantu-dantza Jirak herrian bilduko ditu beste herri batzuetako kantu jira eta dantza plaza taldeak.



Edalontzia erosi eta nahi beste sagardo edan ahal izango da.



Ohi bezala, lehen mailako bertso saioaz gozatu ahal izango da Manuel Lekuonan.



Okela

HARATEGIA

Ondo igaro
San Pedro Jaiak!!

ARTISAU URDAITEGIA
ETXEKO JANARIA
BERTAKO HARAGIA



Arkumea errea
temperatura
baxuan





- % 15

iragarki hau
aurkeztuz
deskontua

Uztailaren 1a arte
baliagarria

Kale Nagusia, 41
Nafarroa kalea,3
Paseo Ondarreta I

20160 LASARTE ORIA
20230 LEGAZPI
20018 DONOSTIA

Tel.: 943 36 39 12
Tel.: 943 73 18 25
Tel.: 943 21 89 03



Iritsi dira jaiak



Egun bakarra geratzen da egutegian tatxatze-ko San Pedro jaiak iritsi aurretik. Bihar eztanda egingo du festak eta jendez, kolorez eta musikaz beteko dira herriko kaleak. Armairutik blusak atera, jantzi eta txupina botaz egingo die ongi etorria festei Lasarte-Oriak. Eguerdian izango da haurrena, eta arratsaldean bestea. Hori eta gero, herritarrek ez dute aspertzeko denborarik izango, ekintzaz beteta baitator aurtengo egitaraua ere. Hainbat elkartek hartu dute parte hori osatzerakoan, herria baita festen abiapuntu, ardatz eta helmuga. Aurtengo jaiak ere iritsiko dira helmugara astelehenean, baina lau egun zoragarri falta dira oraindik.

aterpea
lasarte/oria

**elkar zaitez!
herria egiten dugu**



Herriko jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!

SARDINA-JATEA Ekainaren 29an Okendo plazan arratsaldeko 18:00etan

Akene Zapatadenda
Alba moda
Alda complementos
Aritza Mertzeria
Asmae Zapatadenda
Andatza Taberna
Arkupe Taberna
Bazar Abreu
Bideo Lagunak
Okela Harategia
Carrefour expressa
Aldaz Hertz Klinika
Ormazabal loradenda

Donna Boutique
Confecciones Nogues
Electricidad Arregui
Sukoa Burdindenda
Betelu gestoria
Izarra bitxitegia
Zumaburu liburu-denda
Mauxaren Denda
Maya Lentzeria
Merceria Olmi
Mertzeria Drogeria Uruzola
Noaoa Bidaiak
Optika Lizarri

Orbela Ekodenda
Maiane lurrindenda
Martin Berasategui jatebxea
Santana Informatica
Alcar Leihoak
Isu Leihoak
Ventanas San Miguel
Zurich aseguruak
Iturbe zapatadenda
Bozal German
Cannes
Yolanda taberna
Amalur ziberlokutorioa

Osteopatia eta Fisioterapia Noelia
Buenetxea taberna
Bus taberna
Cerveceria Abend
Araeta jatebxea
Trumoi taberna
Santxo Taberna
Avenida kafetegia
Izurde taberna
Multiopicas
Ferreteria-Cerrajeria Josema

T. 637 955 030 • aterpea.elkartea@gmail.com

Osteguna 25

18:00

Sari banaketa Jubilatuen Elkartek egindako jardueren-gatik eta jarraian luntxa eskei-niko zaie parte hartu dutenei.

Ostirala 26

11:30

Kale Nagusian Udal Musika Eskolako trikitilari eta pandero joleak arituko dira.

12:00

Jaiei hasiera emateko, omen-duen pregoia eta haur txupinazoa botako da Udaletxetik, eta Buruhandien Konpartsa. Ostargi elkartearen eskutik abiatuko da, Oriako Txaranga eta Txorotxarangez lagundurik.

13:00

Txorotxaranga-rekin haurren kalejira Atsobakarreraino, iteera Udal zaharrean.

14:00

Haurren herri-bazkaria Atsobakarko parkean. Ttakun K.E.-k antolatua.

15:00

Bazkalondoan, uretako jolasak Atsobakar auzoan. Ttakun K.E.-k antolatua.

16:00

Busti Blai jarduera, Atsobakarko plazetan barrena Ttakun K.E.-k antolatua.

16:30

Sorgin-Dantza abiatuko da Oriatik, eta Okendo Plazan bukatuko da. Ttakun K.E. antolatua.

19:00

Elkarte omenduen eskutik pregoia eta txupinazoa Udaletxe berriko balkoitik Okendo Plazan.



Ondoren,

Erraldoien dantza Okendo plazan Oriako Txarangarekin eta Bilaketa Txarangarekin.

20:00

Euskorleans Dixie band, Kale Nagusitik abiatuta herriko kaleetan barrena.

21:30

Zikiro-afari tradizionala Okendo Plazan. Ttakun K.E.-k antolatua.

23:00

Dantzaldia Ibai Berriak-en eskutik Isla Plazan.

00:00

Zezen-suzkoa Kale Nagusian.

00:00

Zea Maysen kontzertua Okendo plazan.

02:00

Gozategiren kontzertua Okendo Plazan.

Larunbata 27

09:30

Tirriki – Tarrako trikitilariak diana joko dute.

10:30

Esku pilotako benjamin, ale-

bin, infantil eta beteranoen herriko txapelketa Loidibarreneko frontoian.

10:30

Errugbi partidak Michelin kirol guneko futbol zelaian Beltzak Ostadarrek antolatua.

11:00

APG (Aprende a patinar Gipuzkoa) ikasleen lerroko-patinaje erakusketa Okendo plazan.

11:30

Haur Parkea Andatza plazan.

12:30

Hirugarren errugbi garaia Okendo plazan Beltzak Ostadarrek antolatua.

12:30

Ostargi elkarteko Erraldoi eta Buruhandien irteera, Blas de Lezo kaletik.

13:00

Emakumezkoen pala txapelketako finalak Loidibarreneko frontoian.

16:30

Haur Parkea Andatza plazan.

17:00

“Los niños de la Mary”

laukoteak eta “El que entra no sale” txirigotak (Cadizko inauterietan bigarren eta laugarren gelditutakoak, hurrenez hurren) Okendo Plazan.

18:00

Trapu Zaharrak “La Conga” antzeztuko du (erderaz) herriko kaleetan.

20:00

Amaia Gonzalez Caballero dantza eskolako ikasleen areto-dantza erakusketa, Manuel Lekuona kultur-etxean.

20:00

“Turututu pailazo bihurtu” haurrentzako animazioa Andatza plazan.

20:00

The McKensy's Clan band, Kale Nagusitik irtenda, herriko kaleetatik barrena ibiliko da.

23:00

Dantzaldia Tsunami-ren eskutik Isla Plazan.

00:00

Zezen-suzkoa Kale Nagusian.

00:00

Gatibu-ren kontzertua Okendo plazan.

01:30

La Locomotora del Infierno” ikuskizun piroteknikoa Kale Nagusian

02:30

Ze Esatek!-en kontzertua Okendo plazan.

04:00

Brincadeira, Mertzero plaza-tik irtenda, erdialdeko kaleetan barrena ibiliko da.

05:30

Txokolate-jana Okendo plazan.

Igandea 28

09:30

Tirriki-Ttarrakako trikitilariak diana joko dute

10:00

“San Pedro jaiak” bolo eta toka lehiaketa Udal bolatokian.

10:30

Lerroko dantzen erakustaldia egingo dute Biyak Bat elkarteko kideek Okendo Plazan.

11:00

Gaztetxoan danborrada, Manuel Lekuona kultur etxetik herriko kaleetan barrena ibiliko da, Oriako Txaranga lagun dutela.

11:15

Aretoko dantzen erakustaldia egingo dute Biyak Bat elkarteko kideek Okendo Plazan.

11:30

Haur Parkea Isla plazan.

12:00

Kantu-dantza jira Okendo plaza-tik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibiliko dira. Ttakun K.E.-k antolatua.

12:00

Erraldoi eta Buruhandien

TABERNA Buenetxea KAFETEGIA



Tostadak Kruasanak plantxan Txokolatea txurroekin

.....



FESTETAN

- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Sandwichak
- Brotxetak

Kafe bereziak

**Irlandesa
Eskoza
Kaputxinoa
Bonboia**

**Batido naturalak
Koktelak
Mojitoak
Gin Tonic Bereziak**

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA**

OSO ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

irteera, Blas de Lezo kaletik.

16:30
Haur parkea Isla plazan.

17:00
Zero Sette akordeoi orkestraren emanaldia Okendo plazan. Jay band bertsoiak.

18:00
Sagardo-dastatze herrikoia Okendo plazan. Ttakun K.E.-k antolatua.

18:30
Dantza gidatua, Okendo plazan Ttakunen eskutik.

19:30
Zumba eta Jumping-fitness saioen erakusketa eta parte-hartzea Andatza plazan.

20:00
Haurrentzako apar-festa Elizatze plazan.

20:00
Los artistas del Gremio txarangak girotuko ditu herriko kaleak.

23:00
Beteranoen danborrada tradizionala, Oriako Txaranga lagun dutela, Okendo plaza-tik herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

23:00
Bihotzkada eta Rok Kam Broom taldeen kontzertuak Okendo Plaza.

Ondoren
Dantzaldia Erokomeri taldearekin.

00:00
Zezen-suzkoa Kale Nagusian.

Astelehena 29 San Pedro eguna

09:30
Tiriki-Ttarrakako trikitalariek diana joko dute.

10:30
Umeen Bolo eta Toka tirada Okendo plazan.



Oharrak

Aldez aurreko salmenta, ekainaren 18tik aurrera, 18:00etatik 21:00etara bitartean, Manuel Lekuona Kultur-etxean:

Dantza erakustaldia 3,80 euro
(Haurren bonoek balio izango dute)
Bertsolariak 5,50 euro
(Helduen bonoek balio izango dute)

La locomotora del infierno: Kale Nagusian establezimenduren bat duten herritarrei jakinarazten zaie erakuslehoak kartoiz estali beharko dituztela ekainaren 27ko gauean, erredurarik jasan ez dezaten. Beren establezimenduak babesten ez dituzten herritarren erreklamazioak ez dira kontutan hartuko.

Gomendioak:

1.- Udalak beretzat erreserbatzen du programatutako ekitaldiren bat ezinbesteko arrazoiengatik aldatzeko, kentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea.

2.- Pertsona guztiei arren eskatzen zaie kasu egin diezaietela Udaleko enpleguengandik edo agintaritzako agenteengandik jaso ditzaketen agindu partikularrei, eta, bestalde, ez ditzatela oztopa DYAre lanak, festetan esku hartu beharrean gertatuz gero.

3.- Parte hartu, ondo pasatu, baina kontuan izan besteenganako errespetua.

4.- Errespetatu kaleko altzariak, lorategiak, kale-plazak, etab., lasarteoriatar guztion eta zerorren onerako.

5.- Ez oztopatu ez garbiketako lanak, ez udal zerbitzuak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela, gainerakook festetan ondo pasa dezagun.

6.- Debekatuta dago petardoak, suziriak edo antzekoak saltzea.

7.- Gogorazten da debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.

8.- Edaten baduzu, ez gidatu.

9.-Kale Nagusia itxia egongo da ibilgailuen trafikorako, 2 zenbakitik 32 zenbakira bitarte, ekainaren 26ko 11:00etatik ekainaren 30ko 05:00 arte.

13:00
Omenaldia Ostadar SKT eta Biyak Bat jubilatuek elkarteari omenaldia Manuel Lekuona kultur etxean.

16:30
Jokomobila Isla Plazan, familia guztiarentzako jokoak.

17:00
Hortzmugaren LIBERTIA haur-antzerkia Okendo Plazan.

18:00
Sardina-jate herrikoia Okendo Plazan. Aterpeak antolatua.

19:00
Biyak-Bat konpartsaren irteera. Oriako Txaranga lagun dutela, zaharren egoitzatik abiatuta herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

19:30-21:30
Dantzaldia KAOBA taldearekin Andatza Plazan.

22:00
Bertso-festa Manuel Lekuona Kulturetxean, parte-hartzaile hauekin:

Gai-jartzailea
Inazio Usarralde

Bertsolariak
Unai Muñoa
Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Patxi Etxeberria
Ane Labaka
Alaia Martín

23:00
Su artifizialen ikuskizuna Zaragozana Piroteknia famatuak botako ditu Atsobakarko parketik.

23:00
ABIBA disko jaia Okendo Plazan.

23:30
Dantzaldia KAOBA taldearekin Andatza Plazan.

00:00
Zezen-suzkoaren entzierroa Kale Nagusian eta jaien amaiera.

11:30
Esku pilota-partidak Jubenilen eta 1. Mailako seniorren kategorietan, Loidibarrengo frontoian.

11:30
TXOF Haur Parkea Isla plazan.

12:00
Extremadurako migen dastaketa eta Errenterriko "Ecos de Extremadura" koruaren ekitaldia Okendo plazan.

12:00
Erraldoi eta Buruhandien irteera, Blas de Lezo kaletik.

12:30
Herri-kirolak Elizatze Plazan.

 **IRIGOYEN**
OPTIKA

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



Largoenea 1, Tel.: 943 371047
Lasarte-Oria



Sorginduta dago herria

Sorginek hartuko dute Okendo plaza egunotan, gaurtik hasi eta astelehenera bitarte. Iritsi dira Sorgin Jaiak: iritsi dira festa giroa, kontzertuak, bazkari zein afari herrikoiak eta gogotik gozatzeko eguna. Lasarte-Oriako langileriak botako du txupina gaur arratsaldean, herritar guztiak batu nahi dituen jaiari hasiera emanaz. Has dadila festa!

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !



FISIOTERAPIA ZENTROA Ibaiondo

Fisioterapia Errehabilitazioa Masajeak Osteopatia

Ola Kalea, 12 - behea. ezk - LASARTE-ORIA
Tel. / Faxe: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

GOXOKIS GOXUA



OSO ONDO PASA HERRIKO FESTETAN !

Geltoki Kalea 9 behea • Tel.: 637 462666

AUTOESCUELA IZARRA AUTOESKOLA

Geltoki kalea, 11 Lasarte-Oria
Tfno: 943 37 70 05

20% MATRIKULAN

Etxean edo Autoeskolan Prestatu zaitez!!

ONDO PASA SAN PEDRO JAIETAN!!!!!!!

Osteguna 25 Pijama eguna

17:00
Haurrentzako jolasak eta tailerrak Okendo Plazan.

17:30
Koadriren jaitsiera elektrotxarangarekin, Isla Plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

20:00
Txupina Okendo Plazan. Omendua herriko langileria.

21:00
Herritar guztientzako afaria Okendo Plazan.

23:30
Kontzertuak Okendo Plazan:

King Kong Boy
Eskean Kristo



Ostirala 26

17:30
Lokal poteo girotua koadriren lokaletatik Okendotik hasita.

20:00
Ongietorria kuadrilla gonbidatuei Okendo Plazan.

20:30
Kale kontzertuak Kale Nagusian Ilargi taberna parean:

The Garax
Gabezia
Obito

Larunbata 27

14:00
Bazkari herrikoia, Tximistarreta parkean.

16:00
Ezten Giro taldearen kontzertua, Tximistarreta parkean.



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Bideo Lagunak

Etxekotesna elektrikoetan adituak

12 ORDAINDU HILABETETAN INTERESIK GABE

TIN: 0% TAE: 0%

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

18:00
Mus eta Brilet mistoko lehiaketa Mercero Plazan

19:00
Kontzertuak Pablo Mutiozabal Kanean, DBHko institutuaren parean. 23:00ak aldera bukatuko dira.

Keep diggin

Parrandarako Horkresta

Igandea 28

10:30
V. Bakailao txapelketaren hasiera.

12:30
Bakailao txapelketaren amaiera. Txapelketan parte

hartu duten sukaldariak presatutako bakailaoarekin egingako pintxoak banatuko dira txoznan.

Jarraian, sari banaketa izango da eta bakailao pintxoak txakolina-rekin dastatzeko aukera.

17:30
Oriako jaitsiera. Baltsak hartuta hainbat herritarrek burutuko dute ohikoa bilakatu den ekintza.

22:30
Kontzertuak Okendo plazan.

Bihotzkada

Rok Kam Broom

Ondoren, dantzaldia, Erokomeri taldearekin



Oharrak

- Mus txapelketa:
Izena ematea egunean bertan egingo da Sorgin gunean.

- Bazkari herrikoia:
Mahaia, aulkiak eta edariak eskura egongo dira.

Edaria nahi adina egongo da: sagardoa, ura eta ardoa

Edariko txartelak 2 eurotan Tximistarretan bertan egongo dira salgai aurten.

Janaria prestatu eta bazkaltzeko beharrezko tresnak (parrillak, ikatza, eltzeak) eta bere janaria eraman beharko du.


- Sorgin Jaiak ez da kargu egiten bertan gerta daitezken ezbeharrez.

- Sorgin Gunean ez dira eraso SEXISTA, ARRAZISTA, HOMOBOFO eta FAXISTA-rik onartuko.

- Herritarrek Sorgin gunea txukun mantentzea erregutzen dute Sorgin Jaiak.

- Era berean, herritarrei edalontzien berrera-bilpena eta ekimenetan aktiboki parte har dezaten animatzen die.

OSO ONDO PASA HERRIKO FESTETAN!



Juan XXIII.a plaza Lasarte-Oria

Eguerditan ere irekita daukagu!




Carrefour
express



Erabateko gutizia aurkituko duzue gure produktuetan!



Gure ogiak:

- Cristal
- Molde Cristal
- Parisien
- Txabola
- Mendiko
- Bastonelli
- Leña ligth
- Espelta
- Manantial
- Artoa
- Salud
- Artoa zerealekin
- Aleman
- Molino
- Verde
- Centeno molde



*Gure ogi FAMATUENA
CRISTAL OGIA*

GURE KALITATEA DASTATU



Bila bazabiltza, hementxe duzu

Asko disfrutatu herriko jaietan!



gure BETIKO kafea



Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA

Manolo Morales eta Jesus Diez LOKE taldeko zuzendaritzako kide ohiak

Bizitza oso bat kirolari emana

Urte askoren ostean, LOKE taldeko zuzendaritza utziko dute

Michelin SD desagertu eta 1995 urtean Lasarte-Oriako Kirol elkartearen sorreran parte hartu zuten Manolo Morales eta Jesus Diez herritarrek. Garaipenak, zailtasunak, erronkak, pozak, atsekabeak... Denetarik bizi izan dute elkartearen zuzendaritzan lanean egon diren 20 urte hauetan. Orain, zuzendaritza utzi eta atseden hartzeko garaia dela erabaki dute biek belaunaldi berriei lekua utziz. LOKEko sorreratik gaur egunera arteko errepasoa egin dute haiekin izan dugun solasaldian.

Jon ALTUNA EGITEGI

67 eta 70 urte dituzte hurrenez hurren Morales eta Diez lasarteoriarrek, baina hitz egiteko moduak eta keinuen energiak salatzen ditu. Haur baten pasioarekin bizitzen dute kirola. Azken 20 urte hauek LOKEren zuzendaritzan egin dituzte, baina lehenagotik hasiak ziren kirol munduan.

Manolo Moralesek 1982. urtean hartu zuen Michelin SDren mahai-teniseko aloraren ardura. Jesus Diez are lehenago, 1978. urtean egin

zen igeriketa taldearen kargu. "Lehen unetik gazteei kirola egiteko aukera ematea izan da gure motorra", adierazi dute.

1995. urtetik aurrera egin dira batez ere ezagun Diez eta Morales, LOKEren zuzendaritzan parte hartu dutelako 20 urte luzez. Denbora honetan egindako irribarre eta botatako malko bat edo besteren ostean, belaunaldi berriei lekua egitea erabaki dute, lege onean.

Duela bi urte hasi ziren urratsak ematen kargua utzeko: "Amaia Andres atleta ohia



Hainbat sari eta oroigarri banatu ditu Jesus Diezek (berdez) zuzendaritzako kide izan den 20 urteetan zehar.

agertu zen orduan", azaldu dute: "Presidentetza kargua hartuko zuena emakume bat izatea nahi genuen eta gogo onez, baietz esan zigun 1992an Bartzelonan olimpiko izan zen atletak". Andresen izendapena emakumezkoen kirola herriari begira bultzatu

eta instituzioen aurrean babesteko estrategia baten barnean ikusten dute bi gizonen. Eta presidentetzaz beraz gain, kluba esku onetan uzten dutela uste dute. Presidenteorde postuan Gorka Aristegi judo irakaslea ari da lanean eta Xabier Gonzalezek teniseari eta Maite Ruedak gimnastikari erritmikoari, euren lanarekin jarraitzeko asmoa agertu dute. "Etorkizuna bermatuta dago LOKE", diote Morales eta Diezek.

Sorrera

Michelin SDren eszisiotik jaiotako kluba da LOKE, esan bezala, 1995. urtean. Zehazki, Michelin enpresak udalari instalazioak saldu eta bere kirol taldeak deusezteara eraba-

ki zuenean. Bitxikeria gisa, klubaren lehen urratsetan bada anekdota txiki bat. Manuel Moralesek ondo gogoan duen istorio bitxi bat: "Michelinek ez jarraitzea erabaki zuenean, kalean 600 gazte uzteko arriskua ikusten genuen, herrian inolako kirol aukerarik gabe. Horregatik hasi ginen klub berri bat sortzeko ideiarekin eta jakina, izena Lasarte-Oria Kirol Elkarte jarri nahi genion. Klub berri bat sortzen ari ginela uste genuen, baina Eusko Jaurlaritzara paperak bidaltzen hastean, kluba dagoeneko existitzen zela esan ziguten gure harridurarako; 1987. urtean sortutako LOKE erregistratuta omen zegoen. Guk ez genekien hori. Beraz,



Ezkerretik eskubira: Maite Rueda, Gorka Aristegi, Manolo Morales, Amaia Andres eta Xabier Gonzalez.

1995. urtean sartu ziren zuzendaritzan Manolo Morales eta Jesus Diez. Klubean dexente lehenagotik zeramaten lanean, ordea. 1978an Diez, eta 1982an Morales

DISFRUTATU FESTETAN !

Riojanos

Erretegia

Afariak, bazkariak, pintxoak, ...



Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA



Bar Belatz

San Pedro Jaietan eta egunero kopak eta pintxoak lagun artean

Jose Antonio Alvarez

Iñigo de Loyola 10, baxua Lasarte-Oria

943 37 46 38 619 67 00 06
topoyiyo@gmail.com

klub horren azken aktak eska-
tu eta Carballo zuzendari-
tzako kidearekin hitz egin
ostean, haien proiektura batu
ginen gu biok Xabi Castrore-
kin batera, zortzi kirol
eskaintzarekin”.

LOKEk bere baitan har-
tzen zituen kirolak honako
hauek ziren 90eko hamarka-
daren bigarren erdian: atletis-
moa, igeriketa, gimnastika
erritmikoa, mahai-tenisa,
judoa, tenisa, futbola, txirrin-
dularitza eta aurrerago, baita
emakumezkoen saskibaloia
ere. “Horiek izan ziren gure
urte loriatsuak!”, gogoratu du
Diezek.

Pixkanaka ordea, eta bizi-
tzaren legea da, desagertzen
joan ziren alor batzuk, belau-
naldi aldaketarik ez zeukate-
lako. “Helduek urte luzez lan
egiten dute, baina atzetik
erreleborik ez datorrela ikus-
tean utzi eta desagertu egin
dira kirol batzuk, orain lau
ditugu, erdiak. Pena handia
ematen digu, baina eutsi egin
diogu nola-hala”.

Michelindik, gaur egunera

Herrian kokatuta dagoen
enpresak urte luzez eskaini
zion herriari kirola egiteko
aukera, 1947. urteaz geroztik
hain zuzen. Hiru hamarkada
beranduago, 1978an, egin

zen Jesus Diez igeriketa alo-
rraren arduradun eta lau urte
beranduago hartu zuen
Manolo Moralesek bere gain
mahai-tenisaren kudeaketa.
“Michelin dena izan da”,
argitu dute. “Beste garai bat-
zuk ziren. Michelinen urteko
aurrekontuak egiten ziren,
baina markak lortuz gero eta
Espainiako gutxienekoetarako
denborak eginez gero, Miche-
linek extra hori finantziatu
egiten zuen, diru guztia gasta-
tuta bagenuen ere, segurtas-
una ematen zizun”, adierazi
du Moralesek. “LOKE ezin
izan genion pribilegio horri
eutsi”, gehitu du Diezek.

Gaur egun “gurasoak” dira
finantza iturri nagusiak. Exzi-
sioaz geroztik “autofinan-
tzaketa” izan du ardatz
LOKEk. Michelinek orain soilik
“ekonomikoki babestu”
egiten ditu bikote betera-
noaren arabera, “eta jadanik
20 urte dira”, eskertu dute.

Kirolari onenei txapelketa
onak euren kabuz bermatze-
rik ez zutenez, hainbat klu-
ben filial edo harrobi bihurtu
zirela kontatu dute. Mahai-
tenisean Donostiako Atletico
San Sebastianekin harreman-
du ziren, Hondarribiako Ama
Guadalupekoarekin judoan,
atletismoan Irungo Bidasoa
Atletismo Taldearekin etab.



Gaur egun dituen atalen bikoitza zituen LOKEk orain dela urte batzuk. Horien artean, mahai-tenis taldea.

“Egitura piramidala sustatu
nahi du Foru Aldundiak
Gipuzkoan. Klub hauek,
esaterako, goikaldean daude.
LOKEk berriz, oinarri funtzioa
betetzen du. Beraz, leku
guztietan daude herriko atleta
onak, LOKEREkin lehiatu ez
arren”, azaldu dute Diez eta
Moralesek.

Bilakaera eta zailtasunak

Urte hauetan kirolak oro har

bizi izan duen bilakaera azpi-
marratu dute. Oro har, guztia
duela 20 urte baino hobeto
doala diote. Egiteko gauzen
arte, agian, emakumezkoen
kirolari loturikoa da: “Ez dugu
lortzen emakumezkoen nera-
bezarotik aurrera kirola egiten
jarraitu dezaten, eta sekulako
pena ematen digu. Mutilek
beranduago uzten dute”.
Orain, Amaia Andrés presi-
dente izateak lagundu
dezakeela uste dute.

Topatu duten beste zailta-
sun bat instituzioekin izan da.
Krisi garai honetan dirua lor-
tzeko zailtasunak izan dituzte
eta azken urteotan ez da erra-
za izan. Oro har, herriko talde
guztiek sufritu dutela oharta-
razi dute, eta baita gurasoek
ere, klubak kuotak ia %40 igo
dituzenez gehiago ordaindu
behar izaten dutelako euren
seme-alabak kirolekara apun-
tatzerako orduan.

Entrenatzaile eta begira-
leen alorrean ere ez da samu-
rra izan bidea. Espainiako
legeriak agintzen duenez,
kontratua egin behar zaie
gazteen kargu dauden guztiei.
“Guk hori oso-oso zail ikus-
ten dugu. Halako gauzak
kudeatzeko asesore bati deitu
behar izan diogu, eta hori
gurasoen kontura joan da”.

Izan ere, euren filosofia
oso bestelakoa izan da urte

guzti hauetan. Handiek txikiei
irakastea izan da euren lema.
Emaitez harago, jendeari
kirola egiteko aukera ematea
izan da LOKERen motibazioa.

Buruntzaldea torneo eta milia

Nazio mailan ezagun egin-
razi dute LOKE bi txapelketa
nagusiki. Diez eta Moralesen
agintaldeko bi txapelketa en-
tzutetsuenak mahai teniseko
Buruntzaldea torneo eta
atletismoko milia izan dira.

Buruntzaldea torneoak 13
urte egin zituen, 2007. urtean
desgertu zen arte. Espainiako
jokalaria onenak bildu ziren
urte horietan Michelingo pilo-
talekuan antolatzen zen tor-
neoa, “inori sosik ordaindu
gabe”, Morales antolatzaileak
dioen bezala.

Granada, Almeria, Kordo-
ba, Madrid eta hainbat txina-
tar nazionalizatu etorri izan
ziren, Juanito eta Alfredo Car-
mero jokalaria handiak esate-
rako. “Ezagunak izanagatik,
torneoaren antolaketa onaga-
tik etortzen ziren denak.
25.000 euroko aurrekontua
zuen torneoak, 32. sailkatua-
rentzat arte zeuden sariak, eta
lehenak 1.000 euro eramaten
zituen etxera. Halakorik
mahai-tenisean ikustea oso
zen zaila Espainian”, gogora-
tu du Moralesek.



Buruntzaldea txapelketaren edizioek ikusmira handia sortzen zuten herritarren artean. 2007an desgertu zen.

Jalgune



Elkarte



**LASARTE-ORIATHARR@K
OSO, OSO ONDO PASA
SAN PEDRO JAIETAN!**

Bekokale bidea | 2. solairua • LASARTE-ORIA



2008an utzi zion LOKEk milia antolatzeari. Hori baino lehen, Espainiako atleta onenetako batzuk etorri ziren parte hartzera: Juan Carlos Higuero edota Maite Zuñiga, besteak beste

Dena den, mahai tenisaren lorpen handiena Superdibisiora igotzea izan zen, Espainiako maila gorenera. 1983. urtean izan zen hori, Jose Mari Erasquin prestatzailearen eskutik. Jokalari gisa Zulaika, Erasquin, Eizmendi, Izeta, Zubizarreta eta Etxeto aritu ziren.

Almerian lortu zuten igoera: "Itzultzean, Michelin enpresak zailtasunak zituela jakinarazi zieten eta ez zutela zetorren urtean Superdibisioan jokatzetik izango, kolpe latza izan zen", esan du Moralesek. Bertako jendearekin osatutako taldea Bautzen eta Espainiako maila gorenean zegoen, filosofia jakin eta berezi batekin, atzerritarrez jositako jokalarien taldeen aurka jokatzeko prest. "Handik aurrera, oinarritzko kirolarekin lan egitea egokitu zitzaigun, 2007. urtera arte."

Miliarekin lehen unetik berdina egiten saiatu ziren, etortze hutsagatik atletei diru-

rik ez ordaintzen ahalegindu ziren.

"Ezinezkoa izan zen", ohartarazi du Diez antolatzaileak. "Lehen edizioa Amaia Andresen kontaktuen bidez antolatu genuen. Hurrengo urtean Carla Sacramento ekarri genuen, baina Miguel Angel Mostaza atleten ordezkaritari ez zitzaion batre gustatu bere atletek sosik kobratu gabe korritze hori eta prentsari lesionatuta zegoela esan behar izan genion, beroketak egin zituen umeekin", gogoratu dute umore onez.

Urtetik urtera miliako nibelak gora egin zuen, baina dirutza ordaindu behar izaten zuten atleta onak etor zitezten. Saria ez zen gainera izugarri horietakoa, 300 euro ziren. Gastua gastuari gehitu zitzaion. "Irautea ezinezko den dinamika batean sartu ginen", azaldu du Diezek.

2008an desagertu aurretik ordea, Espainiako milia one-



Europako 1.500 metroko txapelketa birritan irabazi du Juan Carlos Higuero. Milia ere badauka palmaresean.

netakoa izan zen Lasarte-Oriakoa. Fuentes Pila, Maite Zuñiga edota Juan Carlos Higuero etorri ziren. Garai hartan atletismoa goren gorenean zegoen garaietan birritan 1500 metrotan Europako txapeldun izan da Higuero eta Zuñiga Espainiako 800 metroetako 'recordman'-a ekartzea ez zen merkea.

Dena den, babes handia jaso zuten patrozinatzaileen aldetik ere. 35.000 euroko aurrekontua izatera iritsi ziren. Diru asko zen, zazpi hilabete aurretik, urrian jadanik hasten ginen maiatzeko proba ondo atera zedin. Guk logistika kontuak eramaten genituen, Amaia Andres arduratzen zen parte-hartzeaz. Gure egitekoa gero dirua batzea zen, hori izan da guretzat gogorrena, hara eta hona diru eske ibiltzea", aitortu dute biek. 2004ean hasi eta 2008. urtera arte iraun zuen miliak, denera bost edizio ospatu zituzten. "Harro gaude milia eta mahai-teniseko txapelketa hainbat urtez antolatzeko gai izanaz", onartu dute Diez eta Moralesek.

Etorkizunari begira

Gaur egun, lau alor ditu LOKEk eta sorreraz geroztik %50ean jaitsi da kirol eskaintza. "Saiatu gara, baina jendea kosta egiten zaio zuzendaritza batzordeetan sartzea eta maitasunagatik gauzak egitea Xabier Gonzalez, Gorka Aristegi, Oscar Goikoetxea eta Maite Rueda LOKEko entrenatzaileek egiten duten bezala", adierazi

dute zuzendaritza utziko duten Manolo Morales eta Jesus Diezek.

Urte guzti hauetan zehar egindako lanaren errepaso bat ere egin dute biek: "Guk ez dugu kobratzeko lan egin, gazteei aukera bat eman eta kaletik ateratzeko baizik. Orain kluba egoera onean geratzen da, iraunkor. Ez genuke defuntzioagatik itxi nahi, egoera duin batean utzi nahi genuen eta oraingo momentua ez da txarra. Kirol eskaintza jaitsi egin da, egia da, baina oso esku onetan uzten dugu kluba eta zuzendaritza berriko kideek badakite irailetik aurrera gure iritzia eta laguntza behar duten guztietan izango dutela, baina zahartzen ari gara, Lasarte-Oriako kirol errealitatea guk ezagutu genuenaren oso bestelakoa da eta klubak bultzada bat behar duela uste dugu. Ziur zuzendaritza berria primeran moldatuko dela, eskerrik asko urte guzti hauetan eman diguzuen laguntzagatik".

Kirol legez hartu zuten kargua hogeitau urte atzera eta kirol legez esango dute agur Manolo Morales eta Jesus Diezek, LOKEren sortzaile izandakoek, belaunaldi berriei leku egiteko.



Kirol legez hartu zuten kargua orain dela 20 urte, eta modu berean utziko dute Jesus Diez eta Manolo Moralesek.



ZURE BIGARREN
LEIAR PROGRESIBOAK
OPARI
VARILUX®

ERABATEKO BABESA
www.multioplicasgipuzkoa.com

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Arantxa Urdanpilleta Kooperantea

“Beninen haur asko lan egitera behartuak daude”

Kalean bizi diren umezurtz, haur eta gaztetxoekin lan egiten du herritarrak

Lasarte-Orian kooperante gisa lan egiten duen herritar ugari dago. Horietako bat Arantxa Urdanpilleta dugu. Arantxa Salesiarren Foyer Don Bosco elkarteak Beninen duen etxe batera doa ia urtero. Honetan umezurtz edo familia utzi duten gazteekin lan egiten dute. Maiatza hasieran Manuel Lekuona kultur etxean izan zen erakusketan proiektu honen irudiak ikusteko aukera izan zen.

Nerea EIZAGIRRE

Benin Afrikako herrialde txiroenetariko da. 10 milioi biztanle inguru ditu eta %50 ez da 18 urtera iristen. Hiru umetik batek lan egiten du eta %31ak ezeztatu beharko litzakeen lanen bat egiten du eta honetan bere osasuna eta seguritatea arriskuan jartzen du. Kasu gehienetan gurasoak dira lan egitera behartzen dituztenak, baina badira mafiei saldutako gazteak ere. Tratu txarrak, biolentzia edo torturak jasan dituzte. Hau dela eta askok erabakitzen dute etxea utzi eta kalean bizitzea. Arantxa Urdanpilleta herritarrak haur

eta gazte hauekin egiten du lan eta bere esperientzia azaldu digu.

Zergatik Afrika?

Orain dela 40 urte salesiarretan ikasten zuten gazteak gure parrokiara etortzen ziren Kristau ikasbidea emateko. Mendira irteerak etab. egiten zituzten.

Gehienak kanpotarrak ziren eta parrokiako apaizak Urdanpilletarengana joateko esaten zien eta gure etxean egiten zuten lo.

Batek bere ikasketak amaitu eta Afrikara joan zen, Jose Luis de la Fuente. Beti izan zuen Afrikara joateko gogoia. Bizkaitarra zen eta Afrikatik



Arantxak haur zein gazteekin egiten du lan, batuketak edota hizkiak idazten erakusten die.

etortzen zen bakoitzean gure etxera etortzen zen.

Honek 'Niños de la calle' izeneko etxea sortu zuen Beninen duela 18 urte. Etor-

tzean bertako gauzak kontatzen zizkigun eta niri bost axola zitzaidan Afrika edo...

Orain pentsatuta hitz itsusiak ere esaten nizkion orduan.

Baina duela 17 urte Kilimanjaro mendia egitera joan nintzen eta bertako gidarekin, nire ingelesa makarronikoarekin, ordu bete baino gehiago egon nintzen hizketan. Bueltatzean Madrilen nire lagunek afrikarrez nazkatuta zeudela esaten zuten eta nik "bueltatuko naiz esan nuen eta bueltatuko naiz amarekin". "Zoratuta zaude" esaten zidaten lagunek.

Eta noiz joan zinen kooperante gisa lehengoz?

Orain dela hamabost urte egin nuen nire lehendabiziko bidaia Beninera. Txundituta

etorri nintzen hamabost egun horiekin.

Zortea eduki nuen Bilbotik inspektore batzuk joaten zirelako eta Bilboko bikote eta apaiz bat. Eta haiekin bertan zeuden proiektuak ikusi nituen. Txundituta geratu nintzen bertan egiten zen lanarekin.

Lanera bueltatzean erabaki nuen ahal nuenean neguan hilabete bat hartuko nuela soldatarik gabe eta hara joango nintzela berri. Benidormera joaten diren bezala eta horrela hasi nintzen.

Hitz eginiezadazu Benini buruz?

Benin zabala da eta kosta aldean dago. 7 milio biztanle izango dira eta erdia baino gehiago, Porto Novo eta Catanú-n bizi dira.



Landa eremuan lan egiteko gazteak formatzen dira.



Kale Nagusia 39
Tel.: 943 372668
Faxa: 943 370737



San Pedro Jai zorientsuak opa dizkizuegu!

**PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRRE
NAROA**

"Azokan 100.000 pertsona bizi dira eta bertan haurrak eta umezurtzak trapitxeoan ibiltzen dira"

Ni kapitalera joaten naiz, kapital politikora Porto Novo da. Izan ere, han kapital politiko eta administratiboa daude, bigarren hau Cotonú da.

Gero herrixkak daude eta iparraldean badaude Parakou edo Natitingou bezalako hiriak. Baina gehienak hegoaldean bizi dira. Porto Novo oso handia da.

Komertzioetik bizi dira Cotonú-n azoka handia dago eta bertan gauzak erosi eta Porto Novon saltzen dira.

Batzuk Nigeria ondoan dagoenez, bertako petrolio putzuetara joaten dira lan egitera. Eta gero etxera bueltatzen dira.

Garapen aldetik nola dago herria?

Benin Afrikako rankinean oso behean dago, ez dago dirurik ez ezer.

Kale gehienak lokatzezkoak dira. Erdialdean asfaltoko batzuk daude. Frantziatik banandu zirela 50 urte bete zirenean desfile bat egin zuten eta horretarako asfaltatu zituzten kale batzuk... Baina pixkanaka pixkanaka doaz gauzak.

Ekonomikoki salto handia dago, orduan?

Dirua daukanak asko du eta miseria asko ikusten da. Baina nahiz eta horrela izan, oso zoriontsu bizi dira.

Dirua dutenean pasta pixka bat edo tomateak erosten dituzte edo iñama... Arta irina edo maniokarekin egiten dituzte bola batzuk eta horiek haragi edo arrain saltsarekin jartzen dira.

Tomateak eta frutak sasoiaren arabera oso garesti izaten dira. Batez ere, Ramadan garaian.

Dirua daukatenak beste maila batean bizi dira.

Esate baterako, Beninen kriston hotelak daude. Bertan nesketako batek lan egiten du eta bertan ur beroko kanila dagoela azpimarratzen zuen.

Beninen ur kanila bakarra dago honetatik ur epela ateratzen da beti, goizean, gaur freskoa izan bada agian freskoagoa, baina bestela epela eta dirudunek ur beroko kanila dute. Gainera haize egokitu dago.

Zein hizkuntzatan moldatzen zara bertan?

Han lan egiteko bertako pertsona baten laguntza behar duzu. Benin-en 40 hizkuntza baino gehiago daude. Ofiziala frantsesa da, baina inposatutakoa da.



Elikadura zaindu eta higieine ohiturak erakusten dizkiete ere zenbait gaixotasun ekiditeko asmotan.

Nik zoritxarrez frantsesez hitz egin behar diet eta ez dakit asko. Batzuetan txantxak egiten dizkidate. Nik hori nire hizkuntza ez dela eta nire hizkuntza erakutsiko dietela esaten diet.

Baina zeinuen bidezko hizkuntza dago eta horrekin moldatzen gara, batuketak irakatsi edo edozertarako.

Dena dela nik frantsesa fon hitz bat erosi dut eta fon hitz batzuk ikasi ditut. Jubilatzerako fon hizkuntza ikasi behar dut. Porto Novon adibidez lau hizkuntza erabiltzen dira gehien. Baina lau hizkuntza ikasteko ez dut nik burua. Fona da gehien erabiltzen dena eta horrekin hasiko naiz.

Zer nolako lana egiten duzue bertan?

GKEak 6tik 16 urte arteko haur eta gaztetxoekin lan egiten du. Guk mutilak ditugu eta neskenzako salerrek eraturako beste leku bat dago.

Proiektu ezberdinak daude. Hiru barraka daude Porto Novoko auzoetan eta Cotonú-n etxe berri bat egin zen iaz urrian ireki zena. Baserri eskola ere badago.

Zergatik hartzen dituzue gazte horiek?

Kale gorrian daudelako. Ni joaten naizen etxea azoka baten ondoan dago eraikita. Azokan 100.000 pertsona bizi dira eta bertan haurrak eta umezurtzak trapitxeoan ibiltzen dira.

GKE-aren etxean dauden tartean etxera nola bueltatu daitezkeen hitz egiten duzu haiekin eta eskolaratzea posible den.

Familiarik ez badute, harrera familia aurkitzen saiatzen gara eta ikasketak amaitu bitartean bertan egoten dira.

Zenbat haur eta gazte egon daitezke proiektuetan?

Ba ez dakit ziur esaten. Baina 250 bat haur eta gazte bazkaltzen dute toki batean edo bestean.

Zergatik uzten dute familia?

Askotan bitan ezkonduak aita edo ama dute eta besteak ez ditu haurrak nahi.

Gainera, gazte asko lan egitera behartuak izaten dira. Han txikiek helduentzako egin behar dute lan.

Guk etxean izan dugu kasu bat. Zazpi urteko haur batek etxea utzi zuen igeltero laguntzaile lanak egin behar zituelako. 25 kiloko porlan zakuak hartu behar zituen eta ez bazuen egiten egurra ematen zioten. Oso baldintza gogorak pairatzen dituzte.

Zein egoeratan iristen dira gazteak?

Denetarik iristen da etxera. Erizainak ere egoten dira etxean praktikak egiten eta horiek aztertzen dute haurra. Baloratzen dute ospitalera eraman behar ditugun edo ez. Senda bidean jarri eta etxetik zergatik ihes egin duten galdezen zaie.

Gaixotasun larriekin ere joango dira, ezta?

Han malaria da nagusi. Anofeles moskitoak eragindakoa. Gehienak ongi elikatuak ez daudenez, gaixotasuna hartzen dute.

Baina ondo bazaude eta hara baldin bazaude gripe bat bezala pasa daiteke.

Gazteei egunero dutxatu behar dutela irakatsi behar diegu, ze gaixotasun asko har ditzakete ez badira egoki garbitzen. Jantziek ere garbi egon behar dute. Gainera, nahiz eta ospitaleak



Emakumeek eta haurrek lan baldintza gogorak pairatzen dituzte gabeziak eta mafiek eraginda.

aldika 
produktu bereziak

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 377089 aldika@euskalnet.net



HERRIKO JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZUEGU!



publikoak izan, gobernuarenak, analisiak edo dena delako proba osagarriak egiteko ordaindu egin behar da.

Ebola edo horrelako gaitzik, ofizialki ez da ezer egon.

Eta etxera bueltatzen dira?
Batzuk bai. Baina etxera bueltatzen badira ez zaie jarraipena egiten. Gertatu da ere ikasketak amaitu eta inbidiak daudenez eta bertan pozoiak asko erabiltzen direnez, hau hilik agertzea.

Ikasketak aipatu dituzu, zer nolako heziketa dago bertan? Eta hartzen dituzuen haurrak. Zer nolako heziketa dute?
Han hezkuntza publikoa dago. Baina etxeko askok ez dakite irakurtzen, idazten edo axota bat hartzen ere. Beraz, erakutsi behar zaizkie hizkiak. Beste batzuk ikasketak utzi dituzte eta ez dakite batuketak egiten. Gainera, adinaren arabera, ezin dute gero eskolara joan eta baztertzen dituzte. Haiekin lan egiten dugu. Pozgarria da norbait batuketak egiten erakutsi eta bi urtetara bueltatzean eskolan dagoela jakitea.

Zer egiten duzue eskolara-

tzea lortzeko?

Eskolara joan baino lehen eskola txiki batzuk daude eratuak eta hauetan ikusten da zein mailatan dauden eta gai diren. Batzuetan ikasle batzuk azkarrak dira eta eskola pribatuetara eramaten dira. Hauetan matrikulak garestiak dira.

Hauetaz gain, lan egitera behartuak dauden gazteen kasuan, guk negoziaketa bat egiten dugu eta goizetan gure zentroan daude ikasten eta arratsaldean lan egiten dute. Libreki aurkezten dira azterketetara eta horrela ikasketak amaitzen dituzte.

Diru partida bat dago horretarako eta bost gela daude antolatuak. Ikasketak egiten ez badituzte lanbide bat irakasten saiatzen dira eta hau aurrera eramateko tresnak ematen zaizkie, baina gero auskalo. Zuk momentukoa ematen diozu baina bakoitzak bere bidea egin behar du. Bost edo sei bat esate baterako unibertsitatea amaitzen ari dira.

Baserri eskola aipatu duzu lehen...

Konturatu ginen ere landa eremutik haur asko etortzen zela eta haien zatitza baserri eskola bat

dago. Bertan oiloak, ahuntzak etab. daude, hauek nola hazi, barazkiak noiz eta nola landatu eta nola zaindu ere erakusten da bertan.

Hamasei-hogei haur egoten dira bertan. Eta ekoiztiko produktuak saltzen dituzte. Autokudeatu beharko litzateke, baina batzuetan gaixotasunak direla medio zail izaten da. Arrain-haztegi bat ere badago...

Eta bestelako laguntzarik ematen al zaie?

Ikasketetan aurrera doazenei diru pixka bat ematen zaie. Haiek ere jarri behar dute, ze ez dugu parasitorik nahi. Neurtu egin behar da.

Psikologo batzuekin lan egiten dugu, monitoreak daude, hango salesiarrak eta astero biltzen dira kasuak aztertzeko. Bakoitzari zenbat diru, zein epetan eta zein ikasketak egiteko emango zaion erabakitzen da.

Hau ere diruaren arabera egiten da. Hemendik bidaltzen da eta oraintxe Europar Batasunarekin harreman ona dago, baina ez dakizu hurrengo urtean dirua egongo den edo ez. Hori da zalantza.

GKEak beraz krisia ere nabari du...

Bai, baita lehen munduan ematen diren aldaketak ere.

Lehen esate baterako arto pila iristen zen, baina orain hau biodiesela egiteko erabiltzen denez, ez da Afrikara iristen. GKEak hemendik bidaltzen denarekin egiten du lan. Jendeak gauzak ematea nahiago du, dirua ematea



Gazteei ahalik eta baliabide gehien eskaintzen zaizkie.

baino. Horregatik argazkiak egiten dira hemen biltzen diren gauzak hara iristean. Hemen nik biltzen ditudanak esaterako Iruñeara doaz eta bertatik ateratzen dira Benin eta Togora.

Eta zer behar dute?

Denetarik behar dute. Arropa 6 urtetatik 16 bitartekora udakoa bada hobeto.

Liburuak adibidez. Ipuinak edo komikiak bidali izan ditut frantsesez. Ze liburuak balio ez badio, behintzat saldu eta dirua lortzen du.

Erderaz ere bidali izan ditut eta han dagoen gazte-larako irakasle bati ematen zaizkio. Bertakoa da, baina zoragarri hitz egiten du gaztelania. Eskola batean erdara klaseak ematen ditu. Bertan bigarren mailan atzerriko hizkuntza bat ikasi behar da, alemana, ingelesa edo gazte-

lania. Ikusi izan ditut euskarako batzuk ere...

Arroza pakete batekin hasita nahi duzunera arte eman ahal da. Kanpainak egiten dira horretarako eta ongi bideratzen dela ziurtatzen da.

Hemen Gipuzkoan Urnietan, Azkoitian egiten dira nagusiki gauzak gure GKEren alde. Azkoitian pintxo solidarioa egin zen maiatzaren 9an, esate baterako.

Kontutan izan behar da gero eta gehiago behar dela horrelako herrialdetara bidaltzeko, beti eskatzen da baina beharra erreal da eta kontziente izan behar gara oso egoera larrian aurkitzen direla. Lasarte-Oriako Udaletxeari sentsibilizazio kanpainan nolabait parte hartzea eskatu zaio eta erakusketak horregatik egingo dira. Dagoeneko lehengo egin da eta hurrengo bat izango da azaroan.

"Beste batzuk ikasketak utzi dituzte eta ez dakizkitez batuketak egiten. Gainera, adinaren arabera, ezin dute gero eskolara joan eta baztertzen dituzte"



tsst

Gure herriko autobusak
Azkarra, segurua eta erosoa



ASKO DISFRUTATU
HERRIKO JAIETAN!



2014 **Bikam**
euskalaren
kariñate zuzendaria

Tel.: 943 361 740 • www.tsst.info



M^a MARIA LUISA
ILEAPAINDEGI
MIXTOA
Tel.: 943 370980

San Pedro Jai zoriotsuak igaro ditzazuela!!!!



ENERITZ ESTETICA

*Depilazioa, hargizari hotza eta beroarekin
Manikura eta pedikura
Betileak tintatzea
Aurpegi eta gorputz tratamenduak
Presoterapia*

.....



Tel.: 679 298250

Pablo Mutiozabal 9 behea • 20160 Lasarte-Oria

Suak erre zituen urteko gauza txarrak

San Joan suak Andatzara herritarrak erakarri zituen

Azken orduko aldaketa izan zen Andatza plazan ospatzearena baina herritarrek ez zuten hutsik egin eta San Joan sua ikustera gerturatu ziren. Lehenik eta behin, Udaletxe zaharretik abiatu ziren dantzariak udal ordezkariekin kalejiran Andatzaraino, iristean Erketzek, Alboka eta Zero Setteren doinuekin arin-arina, fandangoak, eta San Joan zortzikoa dantzatu zituen besteak beste. Jesus Zaballos alkateak piztu zuen sua eta honekin batera eromena.

Maidier AZURMENDI

San Joan sua da gurean ohitura errotuenetako bat. Ekainak 23ko gauean, urteko gauza eta oroitzapen txarrak sutan erre eta ziklo berri bati ekiten zaio.

Itxaropen eta desio berriak pizten dira udaren iritsierekin batera.

Su honen inguruan soka dantza eskaintzea ere gurea da eta Erketz dantza taldeak urteak daramatza herrian ohitura hau gal ez dadin lanean. Hau eta San Joan zortzikoa tradizionala eskaini zuten asteartean besteak beste sua piztu baino lehen Zero Sette eta Albokako kideen doinu eta ahotsak lagun.

Aurretik, dantzari eta udal

ordezkariak udaletxe zaharretik Andatza plazara kalejiran egin zuten bidea Txistulariak buru.

Dantzarien artean, Arkaitz Naya Lasarte-Oriak Ahal du-ko zinegotzia eta Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki, EAJko zinegotziak izan ziren.

Dantza hauetaz gozatzen berriz, alderdi guztietako zinegotziak izan ziren ia udalbatza berri osoa egon zen ekitaldian.

Bertan izan ziren EHBilduko hiru zinegotziek 'Xirimiri Libre' leloa zeraman elastiko zuria jantzi zuten herriko elkartearen egoera salatzen.

Jesus Zaballos alkateak piztu zuen sua herritarren kalejira iraun bitartean.

Beste behin ere, suak



Erketzeko dantzarien artean, hiru zinegotzi izan ziren suaren inguruan dantzan.

herritarrak erakarri zituen plazara eta dantzariak bukatu zutenean sura gerturatzen hasi ziren.

Gaztetxoek bukatu berri den ikasturteko apunteekin gerturatu ziren Andatzara hauek sutara botatzeko gogoz. Beste batzuek ordea paper txikietan idatzita eraman zituzten erre beharreko pasarte eta desio guztiak.

Gau giro ezin hobean, suaren ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten bertaratu-takoek.

Modu honetan hasiera eman zitzaion ofizialki udarari eta beti bezala, San Pedro jaiak iristear direla iragarri zuten esanahi sinbolikoz jositako, San Joan sugarrek.



Udalbatza ia osoa izan zen San Joan suan.



Dantzak amaituta, Jesus Zaballos alkateak piztu zuen sua.



Herritarrek bukaeran izan zuten aukera sutara apunteak etab. botatzeko.

M. Berasategi Kafeak
1961
LASARTE-ORIA

Gure kafeaz betetako kapsulak

Nespresso kafe-makinekin bateragarriak

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Beti dago aukera kafe on bat hartzeko

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
20160 LASARTE-ORIA

San Pedro giroan murgiltzeko ekintzak

Hamaika ekintza egin dituzte herriko jaien aurrekari modura



Alboka abesbatzak kontzertu ederra eskaini zuen Brigitarren komentuan igandean ikasturteari amaiera emateko.



Jubilatuak karta joko ezberdinetako txapelketak egin dituzte ohi bezala.



Toka, bote eta igel jokoak Isla plazan egin zituzten Biyak Batekoek.



Talde argazkia atera zuten Biyak Bat elkarteak astearterko gimnasia erakustaldiari ekin aurretik.





Sebastián Redondo

**ITURGINTZA
GASA
KALEFAZIOA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ERABERRITZEAK**

**ONDO PASA
SAN PEDRO JAIK!**

DUCHALASARTE

24 ordutan, bainuontzia dutxagatik aldatzen dugu



Kultur Ekartea

Ttakun



JAIZKIBEL ENPARANTZA 8 BEHEA, SASOETA AUZOA • TEL.: 943 371845 // 652 775373



Sasoian daudela erakutsi zuten jubilatuek asteartean, udal kiroldegian.



Emanaldia eskaini zuen Aqua Lauda koruak Brigitarren komentuan, astearte arratsaldean.



Kamixetak tintatu zituzten Gazte Klubeko gaztetxoek.



Herriko hainbat gaztetxok primeran pasa zuten atzo goizeko ur festan. Bero egiten zuten kanpoan, eta erremedio bikaina jarri zioten eguraldiari igerilekuko uretan plisti-plasta ibilita, txirristra eta puzgarri ugari lagun zituztela.



Urtero bezala, Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak emanaldia eskaini zuen atzo arratsaldean Brigitarren komentuan. Hainbat doinu eta kantu interpretatu zituzten bertara hurbildu ziren herritarren gozamenarako.



14 urtez azpiko Beltzak rugby taldeak denboraldi amaiera ospatu zuen.

DANI karrozeria

ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@telefonica.com



Emakumezkoen pala txapelketa eta igeriketako Udarako Txapelketak izan ziren joan den asteko kirol ekitaldi batzuk.



Fernández
e h u n a k

ASKO DISFRUTATU FESTETAN!

Kale Nagusia 2
Tel.: 943 361607
LASARTE-ORIA

EPEL

TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK ETA OLAGARROA

AUKERA IZUGARRIA

- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatueta

OSO ONDO IGARO SAN PEDRO JAIETAN!

Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

ANTONIO URRUZOLA

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

ARROZTEGIA

ONDO PASA FESTETAN!

Etorzaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain polig., 3. pabilioia
20170 • USURBIL (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943 376415
Mobila 687 845597

San Pedroak berdintasunean oinarrituz

Indarkeria matxista motak identifikatu eta hainbat jarraibide bildu dituzte eskuorrian

'Ezetz da ezetz, gureak kaleak eta gauak' izeneko ikastaroa burutu dute hainbat emakumek otsailetik ekainera bitarte, Emakumeen zentro zibikoan. Bertan landutako kontzeptuak Ainara Altuna herritarraren ilustrazioekin batu eta ikastaroaren izen bereko eskuorri bat argitaratu dute. Hori irekitakoan, emakumeenganako indarkeria saihesteko eta egoera hori ematen den kasuetan nola jokatzeko jarraibideak topatuko dituzte herritarrek. San Pedro jaiari begira prestatu dute eskuorria; Lasarte-Oriako 1.500 buzoitan banatu dute jada.

TXINTXARRI

Zure bizitza mugatu beharrean, ipini mugak gustatzen ez zaizunari'; 'Astuna izatea ez da ligatzea, erasotzea baizik'; 'Jaiak pertsona guztiek gozatzeko dira'; Ez zaitez erasoan konplizea izan, eta esan ez erasotzailerei; ezetz, ezetz da'.

Gisa horretako esaldi, gomendio eta jarraibideekin osatu dute eskuorria Emakumeen Zentro Zibikoko hainbat emakumek eta Ainara Altuna ilustratzaileak.

San Pedro jaiak ospatzeko prestatzen ari da herria; moti-

bo horrekin erabaki dute eskuorriak orain banatzea. Atzo arratsaldeko prentsurrekoan adierazi zuten dagoeneko banatu dituztela hainbat eskuorri herriko buzoietan: 1.500 etxetara iritsi dira.

Lelo eta marrazkien indarra

"Besteak beste, sexualitatea norberak modu askean bizi behar duela eta norberak bere bizitzaren jabe izan behar duela transmititu nahi izan dugu eskuorri honetan", azaldu zuen atzo Joana Azpitarte teknikariak.

"Ilustrazioek asko indartzen dituzte eskuorrian bildu



Ezkerretik eskubira: Maria Salsamendi, Lourdes Acevedo, Maite Iglesias, Jesus Zaballos, Ainara Altuna eta Joana Azpitarte.

ditugun egoera eta jarraibideak. Indar asko dute marrazki horiek, baita leloak ere, festak datozen honetan: 'Ezetz da ezetz, gureak kaleak eta gauak'", nabarmendu zuen Maria Salsamendi teknikariak. Era berean, gogorazi zuen herritarrek eskura dituztela hainbat telefono lagungarri, eskuorriaren kontrazalean: SOS deiak, telefo-

no bidezko laguntza eguneko 24 ordutan, Lasarte-Oriako udaltzaingoa, Emakumeen Zentro Zibikoa eta Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuak.

Udalaren balorazioa

Jesus Zaballos alkateak Udalaren izenean hitz egin zuen: "Festetan egote huts horrek ez dio gizon bakar bati ere zilegitasunik ematen emakumeak

indarkeriaz tratatzeko. Oso garrantzitsua da festen atarian eskuorri hau banatu izana; herriko emakumeek era sendo batean erantzun behar diete gisa honetako erasoei. Ezezkoa denean, ezezkoa da".

Era berean, adierazi zuen "oso baliotsua" dela ilustrazioak herriko pertsona batek eginak izatea, herrian "talentua" dagoela erakusten baitu.



ILLARRETA

ITURGINTZA

info@illarreta.com

**HERRIKO
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitza eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Zorion agurrak



Markel

Zorionak Txapeldun! lada 8!! Ondo ospatuko dugu. Mila muxu familiaren partetik.



Izadi

Zorionak etxeko txikiari txokomarrubizko muxuak aita eta amaren partez!!



Mirari

Zorionak zure 10. urtebetetzean!!!! Borobil borobila izan dadila, maite zaitugu!!!!



Andrea

Zorionak maitia, 6. urtebetetzean. Ondo ospatu festa. 6 muxu pottolo familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Lorea

Zorionak printzesa!!!!!!! Lau txokomarrubizko muxua aitaxo, amatxo, eta famili osoaren partetik.



Ekain

Zorionak zure 2. urtebetetzean. Muxu handi bat famili osoaren partetik!



June

Zorionak printzesa Markel eta familiaren partetik!




Alex

Zorionak! Dagoeneko urtebete gu zoriontsu egiten. Asko maite zaitugu ama, aita eta Kenai.



Julen

ZORIONAK TXAPELDUN!!! Bost muxu erraldoi zure urtebetetze egunean, ama, aita eta anaiaren partez.




Ekain

Zorionak bihotza! lada 5 urte. Muxu pottoloak familiaren partez. Asko maite zaitugu.




Nahikari

Zorionak politta zure 5. urtebetetzean kriston parranda egingo dugu ospatzeko. Aitaxo, amatxo eta Lur.



Saioa

Gure neskatxak jadanik 11 urte egin ditu zorionak eta muxuak etxekoan partetik!



Mario

Zorionak txapeldun!! Bost muxu pottolo aita, ama, Paula eta familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Olatz

Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean famili guztiaren partetik. Musu pila bat.

Herritarren txokoa

Kiroldegiko ordutegia jaietan

San Pedro jaiak direla eta, Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazten du honakoa izango dela egun hauetako ordutegia. Ekainak 27, larunbata, goizean 9:00etatik 13:00era irekia izango da; arratsaldean berriz itxita egongo da.

Era berean, igandean ekainak 28 eta astelehenean ekainak 29 kirol instalakuntzak itxita egongo dira.

Udako ordutegia kiroldegian

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, udako ordutegia egongo da kirol instalakuntzetan.

Honen arabera, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00-21:30 bitartean irekia izango da. Kiroldegia, 7:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna: 9:00 - 12:00 eta 17:00 - 21:00 zerbitzua erabiltzeko alde aurretik -gutxienez ordu 1, gehienez 24 ordu- eskatu behar da kiroldegiko atarian.

Larunbatetan eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara erabili ahalko dira instalakuntzak eta igandean itxita egongo da. Sauna itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 ordu tartetan erabili ahalko da. Larunbatetan goizez

izango da irekia, 09:00-13:00 eta igandean itxita egongo da.

Alboka Txikin parte hartu

Hurrengo ikasturtean Alboka Txiki Abesbatzan (6-14 urte) parte hartu nahi duenek idatzi dezakete info@albokaabesbatza.com helbidera eta apuntatzeko egunetan abisatuko zaie izena modu ofizialean emateko.

Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailearen 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaperaren 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribeberria apaizari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuarengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jatetxean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

San Pedro Jaiak txintxarri.eus-en

Jarraitu San Pedro jaiak txintxarri.eus orrialdean eta sare sozialetan. Iaz bezala hiru txupinak streaming bidez zuzenean eskainiko ditugu. Eta honetaz gain, argazkiak, bideoak, jaietako berriak... denetarik izango dugu gure orrialdean, baita zure argazkiak zintzilikatzeko aukera ere.

TXINTXARRI-n zure argazkiak

[Txintxarri.eus](http://txintxarri.eus)-en argazkiak atalean sartuta "igo argazkiak!" aukera aurkituko duzue. Hori bai, lehenengo aldiz sartzerakoan erabiltzailea erregistratu beharko da, pasahitza eskuratzeko. Hauekin sartu eta argazkiak igo eta kudeatzeko lagungarri izango zaizkizuen argibideak aurkituko dituzue jarraian.

Baina ez da hau jaietan atera dituzun argazkiak TXINTXARRI-n argitaratzeko modu bakarra. Zure argazkiak txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliz gero edo 688 68 35 10 zenbakira WhatsApp bidez ere argitaratuko ditugu.

Gainera, astelehena baino lehen jasotzen ditugun argazkiak uztailearen 1an, San Pedro jaietako argazkiekin osatutako TXINTXARRI berezian argitaratuko ditugu. Animatu eta parte hartu!

1.999 TIK
ABREU

ONDO PASA
SAN PEDRO JAIETAN!



Geltoki 2 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365846
www.facebook.com/pages/Bazar-Abreu

Haritza
Joxean Diaz de Guereñu

Ondo pasa
San Pedro Jaietan!!!

Osteopatia |
Kirol eta Terapia Masajea |
Linfa Drainatzea |
Reiki |

Teléfono: 605.75.96.35
Urko Plaza 1, Behea. 20160 Lasarte-Oria
www.haritzaterapiak.com

INFORMATIKA
MARTINEZ MULTIMEDIA

ONDO IGARO JAIETAN!
Ezagutu itzazu
gure eskaintzak,
beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2, behea • Tel./Faxa: 943 360591
LASARTE-ORIA

Zein leiho jarri erabakitzeko orduan zalantzak dituzu?

Materialak, prezioak, zaratak, kristalak, tenperatura, hezetasuna, haizea... Dena da garrantzitsua eta zuk emaitzak ikusi nahi dituzu zure etxerako leiho hoberenak zeintzuk diren jakiteko.

Orientatuko zaitugu inoiz egin bezala



Tel: **943 37 78 68** tienda@ventanasalcar.com
ventanasalcar.com facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA Plaza Oriamendi, 2 (Lehengo Doble J) 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa
TAILERRA Ibaiondo,4 semisotano 5-A 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa



Jai ahaztezinak igaro!



JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.



eraikuntzak

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak


Nagusia 14 behe atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186



**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA
DIZUEGU!
ONDO PASA!**

IZARRA

BITXITEGIA



www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384

Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

